

AIARALDEA hemen



BIHOTZAK DANTZAN JARTZEKO HITZORDUA

ARABA EUSKARAZ 2026



Txakolin Eguna 2026

GEHIGARRI BEREZIA:
Ekainaren 7an ospatuko da Txakolin Egunaren XXVII. edizioa Amurrion



Izan AMURRIO

amurrioko merkatarien elkarte



araba euskaraz '26
Taupadak berpiztu!

OSTALARITZA ZERBITZUAK
BEZEROA MERKATARITZA
ONLINE DENDA

@izanamurrio

Zure herrian, dena eskura eta euskaraz

Herriz herri

Artziniega

Artziniegak badu medikua, eta bigarrena batuko da laster



Artziniegako kontsultetgia, artxibo irudi batean. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Konpontze bidean dago Artziniegan mediku zerbitzuarekin urte hasieratik luzatutako gorabehera. Hala azaldu du Arkaitz San Jose zinegotziak Aiaraldea Komunikabidearen Azalera podcastean.

Jakinarazi duenez, ordezko bat ari da orain herritarrak artatzen, eta ekainaren 15ean iritsiko da titular berria. Bigarren medikua, aldiz, Barneko Medi-

ku Egoiliarretatik (BAME) aterako da, baina oraindik ez dakite zehazki noiz iritsiko den. Modu horretan, bi langileek erdi bana emango diete zerbitzua Artziniegako biztanleei.

Otsailean geratu zen Artziniega medikurik gabe, zenbait erabiltzaileen jarrera "oldarkorren" ondorioz. Horren harira, San Josek nabarmendu du egoera "lasaitu" egin dela ordutik hona, eta poza adierazi du hemendik aurrera mediku finko batzuk egongo direlako.

Ikasturte berrirako izan nahi dute prest Arteko Gure Ama Ikastetxeko jolasgune berria

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Udan egin nahi ditu Artziniegako Udalak Arteko Gure Ama Ikastetxeko jolasgunea handitu eta hobetzeko lanak, ikasturte berrirako prest egon dadin. Tokiko erakundeak 29.000 euroko dirulaguntza jaso du Eusko Jaurritzaren eskutik obra hori egiteko. 50.000 euro baliatuko dituzte guztira lanak egiteko, eta gainontzeko dirua Udalak berak jarriko du.

Eraberritze prozesu handiagobaten lehen urratsa izango da hori, Arkaitz San Joseren hitzetan. Zinegotziaren aburuz, "sekulako proiektua" da esku artean dutena, "urratsez urrats" garatu beharrekoa, eta udan egingo dena "egiteko denbora

gehien daraman zatia" izango da: Haurreskola eta Lehen Hezkuntzako sarreran dagoen jolasgunea hesitzea, "toki babestua" izateko.

Dena den, beste urrats batzuk etorriko dira gero. Udal ordezkariek azaldu du hezkuntza komunitatea prozesu batean murgilduta dagoela "espazio komunak eta patioa" eraberritzeko. Besteak beste, "futbol zelaiari zentralitatea kendu" nahi diote, espazioa "beste modu batera" interpretatzeko. "Sekulako zortea dugu patio handia dugulako, eremu berde handiarekin", azaldu du San Josek Azalera podcastean. Horregatik, aldarrikatu du "guztirako espazioa" dagoela, "ez da ekintzarik kanpoan utzi behar, baina beste zentralitate bat eman nahi zaio espazioari".

Amurrio

Tubos Reunidoseko jarduerarekin jarraitu nahi du administrari konkurtsalak



Iragan maiatzean iragarri zuten sindikatu deitzaileek greba mugagabea bertan behera uzteko asmoa. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Tubos Reunidoseko sindikatuak eta administrari konkurtsalak bilera egin zuten iragan ekainaren 1ean eta langile erakundeek mezu argia zabaldu zuten hitz egindakoari buruz. Lehenik eta behin, iragarri zuten bertan behera geratuko direla enplegua erregulatzeko espedientea, altzairutegiaren itxiera eta logistikaren kanporatzea.

Halaber, administrariak adierazi zuen lantegiaren jarduerarekin jarraitu nahi duela eta hori bideragarri egin, baina azpimarratu zuen horretarako denbora eta inbertsore bat behar duela eta zenbait prozesu abiatuko dituela inbertsioak erakartzeko. Komunikazio gardenaren apustua ere egingo duela iragarri zuten.

Momentuz, kudeatzaile berriak ez du aurreikusitako lanaldi murritzaketak (behin-behinekoak edo behin betikoak) egikaritzea espedienteen bitartez eta lan hitzarmena indarrean dagoela ziurtatu du. Gauzak horrela, sindikatuak eskatu diote berrikustea zer gertatuko den hartutako bi erabakiekin: aparteko lan orduena eta zerbitzu medikuarena.

Abuztura arteko soldatak
Iturri sindikalek ere argitu dio-

Administrariak lantegiko jarduerarekin jarraitzeko helburua duela azaldu die sindikatuei, eta **abuztura arte soldatak ordaintzeko kutxa ziurtatu dute**

te Aiaraldea Komunikabideari administrariak aipatu duela abuztura arteko soldatak ordaintzeko dirua badagoela.

Halaber, normaltasun osoz lan egitea da bere asmoa, soldatei aurre egiteko gaitasuna izateko eta zor gehiago ez eragiteko.

Inbertsorarik ez momentuz

Kudeatzaile berriak esan duenaren arabera, egun ez dago inbertsorarik eta asmoa da baten bat erakartzea eta horrekin SE-PIren jarrera aldatzea, zorraren zati bat barkatzeko edo bestelako neurriak behartzeko bideragarritasunean eragiteko.

Bide batez, administrariak erantsi du ez duela intenziorik enpresa zatitzeko, eta lehentasuna dela atal guztiak mantentzea.

Epaiketa uztailearen 7an

Sindikatuak zabaldu dutenez, enpresak enplegua erregulatzeko espedientea bertan behera utziz gero, eskatuko dute uztailearen 7an egin behar zen epaiketa, ate joka baitago.

Gainera, Langile Batzordeak aldarrikatu du enplegua erregulatzeko espedientea alboratzea -administrariaren erabakia izan omen da- langileen eta grebaren garaipena izan dela, baina ezin dela ukatu egoera oso delikatu dela.

Herriz herri

Amurrio

Amurrio Musikazale Elkartea osatu dute, herriko musikariak antolatzeke asmoz



Eskualdeko ehun musikari baino gehiagok babestu dute elkartea. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Burubio atzean utzita, Amurrioko musikariek ez dute musika-tresnak apartatzeko asmorik. Amurrio Musikazale Elkartean antolatzeari ekin diote Burubion entseatzen zuten taldeek. Denbora laburrean eskualdeko ehun lagun baino gehiago biltzea lortu dute, eta musikaz gozatzeko espazio berri bat lortzera bideratuko dituzte indarrak orain.

Miguel Rodriguez-Valdes Gwa Ya taldeko kidea da elkartearen lehendakaria. Aiaraldea Komunikabideari azaldu dienez “musikariak elkartu eta musika egiteko toki aproposa lortzea” da elkartearen helburua, eta erakundeekin biltzea-

ri ekin diote horretarako. Amurrioko Udalarekin lehenengo bilera bat egin dute berriki eta, zuhurtziaz bada ere, “positiboki” baloratu dute aurreneko bilkura hori. “Refor enpresaldean badira aspaldiko entsegu-lokal batzuk eta horiek birgaitzeko bidean gara”, aurreratu dute. Tailerrak eta ikastaroak martxan jartzeko asmoa ere adierazi du Gwa Ya taldeko perkusionistak.

Ikusteke dago bide horrek fruiturik emango duen baina, bien bitartean, Musikazale Elkartea ez du geldirik egoteko asmorik. Izenak dioen modura, musikariengan soilik ez, zaleengan ere jarri nahi dute arreta. “Zuzeneko musikak duen garrantzia aldarrikatu nahi dugu ere. Burubio itxita leku gutxi geratzen dira kontzertuez go-

zatzeko eta horretan ere egin nahi dugu azpimarra”, azaldu du Rodriguez-Valdesek. Musikazale Elkartearen bidez harremanetan jarri nahi dituzte musikariak eta zuzenekoak antolatu nahi dituztenak: “Taberna edo herriko talderen batek kontzerturen bat antolatu nahi badu, tokiko musikariek harremanetan jartzen lagundu nahi diegu”.

Sukalde lanetan aritu dira orain arte Musikazale Elkarteko kideak. Datorren ekainaren 7an, Txakolin Egunarekin bat eginez, jendaurrean aurkeztuko dute jarduna. Musika tresnen postua atonduko dute kalean eta *jam session*a eskaini; bertaritzen diren herritarrek hainbat instrumentu probatzeko aukera izango dute gainera.

Okondo

175.000 euroko inbertsioari esker berri dute nagusien kluba

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Goitik behera berri dute Okondoko nagusien klubaren egoitza. Okondoko Udalak 175.000 euro inguruko inbertsioa

egin du teilatua hobetzeko, kanpotik eta barrutik margotzeko eta berogailu sistema berria instalatzeko, besteak beste. Maiazaren 27an egin zuten inaugurazioa bazkariarekin, photocallarekin eta dantzaldiarekin.

Aiara

Construcciones Metálicas Ayala enpresa itxi eta 20 lanpostu suntsitu dituzte


Testua
Aitor Aspuru Saez

Construcciones Metálicas Ayala enpresako beharginek adierazitako beldurrak bete dira eta lantegia itxi dute. Langile guztiak kaleratzeko enplegua erregulatzeko espedienteak aurkeztu zuten zuzendaritzak apirilaren 7an.

Berez, espedienteak hamasei lanpostu suntsitu ditu, baina aurretik lau beharginek eskatu zuten enpresatik joatea, egoera ikusita. Hortaz, 20 enplegu desagertu dira guztira.

ELA sindikatuak azaldu du fabrikako langileekin bilera egin zutela apirilean eta guztiek adierazi zutela konpainia utzi nahi zutela, ez baitzuten etorkizun argirik sumatzen. Ondorioz, sindikatuak ez zuen errekurtsorik aurkeztu. Langile erakundeak erantsi du jabeak tokia husten ari direla.

Berez, urtarrilaren 30etik aurrera baterako erregulazio espedienteetan zeuden beharginak. Lanaldiaren %100ean eragiten zien neurriak eta, hortaz, urte osoan ez dute Murgako azpiegiturretan lan egin.



Jakin Jardunaldia

Euskara esanindartzeko bidean: adierazkortasuna euskaraz lantzeko eztabaidak, gakoak eta hautuak

Ekainaren 18 eta 19an,
Usurbilen

Izen ematea zabalik, UEUren webgunean



Herriz herri

Laudio

Gazara eta Paraguaira bideratzeko 2.000 euro baino gehiago bildu ditu La Milagrosa ikastetxeak



Xaboiak eta ogitartekoak saldu dituzte hiru egunetan. [Aiaraldea.eus](#)

Testua Maidor Ramirez Martin

Azoka solidarioak egin ditu maiatzean La Milagrosa ikastetxeak, eta Palestinara eta Paraguairako bidaltzeko 2.179 euro bildu ditu osotara. Zehazki, 400 xaboi eta 3Dn egindako giltzatak ugari saldu zituzten hilaren 13an eta 15ean, eta 350 bokata tarteko egunean.

Xaboi eta giltzatakoen salmentarekin, Karitateko alabek Gazan garatutako *Simplemente cuidando* (Besterik gabe, zaintzen) kanpainari egingo diote ekarpena, Gabonetan ere egin zuten bezala.

Hizkuntzen eta zientzia-teknolo-

giaren saila barne hartzen duen diziplinarteko proiektu baten barruan antolatzen dituzte mota honetako azokak ikastetxean. Ikasleek hainbat lan egin behar izaten dituzte jarduera osoa aurrera eramateko: produktuaren diseinua, publizitatea, aurrekontuak eta balantzeak, besteak beste.

Bestalde, 350 ogitartekoei esker bildutakoa Paraguairako General José María Bruguez komunitateetako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko erabiliko da. Zehazki, bizi-egoera osasungarria bermatzeko bidean, kalitatezko komunak instalatzea da proiektuaren asmoa.

JEZ enpresak bere lehen mendeurrena ospatu du Lehendakariaren bisitarekin



Imanol Pradalesi gutuna igorri dio JEZ enpresako LABen atal sindikalak. [Aiaraldea.eus](#)

Testua Aimar Gutierrez Bidarte

Ehun urte bete ditu JEZ Vostalpine proiektu enpresarialak. Mendeurrena ospatzeko ekitaldia antolatu zuten iragan maiatzaren 29an, Laudioko lantegian. Ordezkaritza zabal bat bertaratu zen ekitaldira, Imanol Pradales lehendakaria buru. Mikel Jauregi Industria Sailburua, Ramiro Gonzalez Arabako Ahalduen Nagusia, Ainize Gastaka Laudioko alkatea, Iñigo Martinez zinegotzia edota Juan Antonio Sanchez Corchero SEAko presidentea ere izan ziren ekitaldian. Vostalpine konpainia austriarrek ordezkariek, Imanol Pradales lehendakariak eta Urtsa Erraztik hartu zuten hitza. Voestalpineko ordezkariek zein Imanol Pradalesek

bat egin zuten nazioarteko egoera ziurgabearen aurrean ezinbestekoa dela Europak neurri estrategikoak hartzea, eta bide horretan trenbideen industria indartzeko beharra azpimarratu zuten. Urtsa Errazti JEZ konpainia sortu zuen sendiaren izenean aritu zen. Errazti familiak abian jarri zuen lantegia Bilbon 1926an eta Guda Zibilaren ostean Frankismoak inkautatu egin zuen. Enpresa berreskuratu ostean Laudioa lekualdatu zuten produktioa. 2019an utzi zituen Errazti familiak JEZ-en zituen ardurak, fabrika Voestalpine konpainiaren esku utziz; "esku onetan" Erraztiren hitzetan.

Gutuna lehendakariari

JEZ-en mendeurren ekitaldia aprobetxatuz, LAB sindikatuko

ordezkariek gutuna igorri zioten Imanol Pradales lehendakariari "Maderas de Llodio enpresako langileek bizi duten egoera larriaren inguruko kezka", adierazteko asmoz. Pare pare daude JEZ eta Maderas de Llodio lantegiak, eta JEZeko beharginek greba mugagabea dauden kideekin elkartasuna adierazi nahi izan zuten horrela. Sindikatuek "premiat" eskatu dio Eusko Jaurlaritzari "Maderas de Llodio auziari irtenbidea emateko eta bertako langileen etorkizuna bermatzeko bide posible guztiak sustatu eta aktibatzea". LABeko JEZeko kideek azaldu zuten, dei bat jaso zuten maiatzaren 29an bertan Jaurlaritzako prentsa ardura-dunen partetik, Lehendakariak gutuna jaso duela eta erantzuteko konpromisoa hartu duela esanez.

BATZAR OROKORRA

Eguna: 2026ko ekainaren 20a, larunbata

Ordua: 09:00etan 1. deialdia / 09:30ean 2. deialdia / 10:00ean 3. deialdia

Tokia: Aiaraaldea Ekintzen Faktoria (Errotari kalea 4-8, Laudio, Araba)

Batzar orokorraren ostean KUDEAKETA EREDUAREN inguruko eztabaida saioa egongo da.

Kooperatibako bazkideei deialdia

Bazkide bazara hurrengo estekan (QRan) izena eman. Dokumentazioa kanal pribatuetatik partekatuko da.

A I A R A L D E A
K O O P E R A T I B A
E L K A R T E A



labur.eus/Aiaraldea2026BO_Asistentzia



A L M A C E N
P I N T U R A S
R E G U E R A

%40
deskontua
15 litroko
pintura txurian

Dekoraziorako margoa
Makinaria
Pintura industrialia
Lan-tresnak
Paper margotua

www.pinturasreguera.com

94 672 82 74
Zumalakarregi
19, behea

LAUDIO

Gardeako
industriagunea 4
94 672 81 22

Urduña

Bi lagun atxilotu ditu Guardia Zibilak droga trafiko sare baten kontrako operazioan



Guztira 16 pertsona akusatu dituzte operazioan. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Maiatzaren 26an goizeko lehen orduan Guardia Zibileko agente ugari bi urduñar atxilotu zituzten. Azaldu dutenez, droga salmenta sare zabal baten kontrako operazioa egin zuten eta Urduñan, zehazki, "kokaina, speed (anfetamina), marihuana eta haxis kopuru handiak" harrapatu zituzten.

Horrez gain, suzko arma labur eta gama altuko auto bana ere eraman zituzten. Atxilotuei osasun publikoaren kontrako eta droga trafiko delituak leporatu dizkiete.

Lehenik eta behin, Guardia Zibilak azaldu du operazio handia izan zela astearte hartakoa. Hamasei lagun atxilotu zituzten eta aldi berean beste horrenbeste higiezin miatu zituzten, pa-

Kokaina, anfetamina, marihuana eta haxis kopuru handiak atzeman zituen Guardia Zibilak Urduñan

bilioi industrial bat barne. Bizkaian, Burgosen, Toledon eta Kantabrian izan ziren erregistroak. Bizkaian zortzi herritar inplikatu dituzte.

Institutu armatuak jakinarazi du sareak modu jerarkizatuan funtzionatzen zuela, segurtasun neurri ugariarekin eta ardurak banatuta. Burua, antza, Merindadeetan bizi zen.

300 agentek parte hartu zuten operazioan eta hamar dosi fentanilo, 9.184 gramo kokaina arrosa, 179 gramo kokaina, 3.001 gramo speed, 18.648 gramo ketamina, 850 extasi dosi, 3.495 gramo haxis, eta 24.280 gramo marihuana bildu dituzte, baita 62.230 euro eta lau arma ere.

Poliziak adierazi du hamabost salmenta puntu, hiru laborategi eta kalamu landaketa bat ezgaitu dituela.

Orozko

Zea Maysen rocka eta Henry Mendezen doinu latindarrak egongo dira Orozkoko jaietan



Rozalenekin batera Orozkon izan ziren Zea Mayseko kideak. **Zea Mays**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aingeru Olaguenaga Orozko zinegotziak Aiaraldea Komunikabidearen Azalera podcastean aurreratu du bi kontzertu berezi izango dituztela aurten San Antolin jaietan. Jai batzordeak hautatu ditu emanaldiak. Henry Mendezek joko du irailaren 4an, Berakatz Egunean. Aldiz, hurrengo egunean, zapatuan, Zea Mays hartuko du oholta.

Orozkoko Udaleko ordezkariak azpimarratu du azken urteetan asmoa izan dutela Zea Mays ekartzeko, baina gauza batzuk edo besteak direla medio,

ezin izan dutela. "Euskal Herriko talde inportante eta polita da eta arantza bat kendu dugu, legealdia amaitu baino lehen kontratatuta", azaldu du Olaguenagak.

Taldea disko berriaren sorkuntza prozesuan buru-belarri sartuta dago. Londresen aritu dira horretarako eta Bilbon ere grabaketa saioa egin dute. Gainera, Artiñano Etxean ere grabazioa egin zuten bilbotarrek 2022an.

Apustu ezberdina

Euskal rockaren doinuetatik oso urrun, Sanantolinetako Jai Batzordeak Henry Mendez Dominikar Errepublikako artista aukeratu du Berakatz Egunean jotzeko. Barikuan, hortaz, erritmo latindarrek hartuko dute protagonismoa.

Mendez ezaguna da Bizkaian Athletic Clubeko ospakizunetan parte hartu duelako, bai Sevillako Athletic Hirian zein Errege Kopako garaipen festan. Zinegotziak espero du harrera onaz itatea musikariak.

Edonola ere, gogoratu beharra dago irailako jaiak heldu baino lehen hainbat hitzordu egongo direla herrian. "Taberna edo herriko talderen batek kontzerturen bat antolatu nahi badu, tokiko musikariekin harremanetan jartzen lagundu nahi diegu".

elkarlan asesores



www.elkarlanasesoria.com

2025
Errenta-aitorpena.

Zure aitorpena esku onetan

30 urte baino gehiago enpresei eta partikularrei aholkularitza fiskala ematen

Kronika

HAMAR BAHITU SIRTEAN, EHUNDAKA MILA HILDAKO PALESTINAN



Dozenaka lagunek egin zioten harrera Loiuko aireportuan Haizea Urkixo aktibista laudioarrari. Libian atxilotutako kideen askatasuna exijitu, eta “erantzukizunak eta zigorrak” ere eskatu zituen “herritar baketsu eta solidarioen aurka indarra erabiltzeagatik”.



Testua **Maider Ramirez Martin**
Argazkiak **Almar Gutierrez Bidarte**

Presa, urduritasuna, jendea etengabe hara eta hona. Dozenak eta datozenak. Horrelakoxea izaten da aireportuen atmosfera. Gaua sartu ahala, baretzen da giroa, jaisten dira dezibelioak, moteltzen dira joan-etorriak. Iragan maiatzaren 27an, ordea, Loiuko aireportuan, bazen mugimendurik.

Helduerak Arrivals Llegadas dioen atea zeharkatzen zuten azken bidaiariek, nekea eta harridura aurpegian. Barandaren bestaldean dozenaka pertsona zain, Palestinako banderak eskuan, kufiyak soinean eta askatasunaren aldeko aldarriak airera. Halako batean

zeharkatu zuen atea Haizea Urkixo Gorostiagak, Libiatik Gazara laguntza humanitarioa eramatera zihoan Sumud Lurreko Konboian parte hartu eta gero.

Sumud Lurreko Konboia

Hilaren hasieran abiatu zen karabana solidarioa Mauritania eta Aljeriatik, Magrebeko boluntarioen ekimenez eta Global Sumud erakundearekin koordinatuta. Tripolitik aurrera munduko 28 herrialdeetako 200 lagun baino gehiago batu zitzaizkien, osasun langileak, ingeniariak eta giza eskubideen aholkulariak tartean, Rafahko mugara elikagaiak, botikak eta etxe aurrefabrikatuak helaraztea helburu.

Libiako herrialdea bitan banatzen duen mugara iristear zeudela eten behar izan zuten bidea.

Handia zen presentzia militarra eta uko egin zion ejerzitoak Konboiari aurrera egiteko segurtasun bermeak eskaintzeari. Kontrara, laguntza humanitarioa Libiako Ilargi Gorriaren Elkarteari transferitzeko agindua eman zitzaion Konboiari, eta jakinarazi zitzaizen soilik herritar libiarrek eraman ahal izango zutela laguntza Sallumeko mugara arte. Egiptoko agintariei egotzi zitzaizkien aginduok.

Zazpi egunez kanpatu zuten karabanako kideek desmilitarizatutako eremu batean eta bermeak lortzen saiatzeko negoziaketa saiakera ugari egin ondoren aurrera egitea erabaki zuten. Maiatzaren 24ko 15:00ak aldera ekin zioten bideari. Poloniako, Estatu Batuetako, Espainiako estatuko, Argentinako, Uruguai-ko, Portugalgo, Tunisiako eta

“Ezin da Palestinaren egoera salatu eta beren gorputzak zuzenean kausa palestinarren zerbitzura jartzen dituzten pertsona solidarioak jipoitu”

Italiako hamar lagunek egin zuten aurrera, pasaporte eta bisa eguneratuekin, ambulanzia eta turismo banatan. Handik eta minutu gutxira galdu zuten komunikazioa; Libiako ekialdeko ejerzitoak bahitu zituen. Gaur gaurkoz ez da haien egoeraren berri.

Hamar kideak askatu arte kanpalekua utziko ez zuela adierazi zuten Konboiak, baina astelehen gauean ezezagunek eraso egin zieten eta hainbat pertsona zauritu zituzten. Tripolira erretiratu behar izan ziren orduan.

Itzulera gazi-gozoa

Emozio askoko asteen ostean, maiatzaren 27ko gaueko hamabiak jotzear zirela lurreratu zen Haizea Urkixo Euskal Herrira. Ohi baino polizia gehiagorik ez oraingoan Loian. Goxo hartu zuten etxean.

Kronika

Familia eta lagunak besarkatu ostean, hartu zuen hitza. Orain arteko gertakariak aletu eta bahituak berehala askatzea exijitu zuen, bai eta Europako agintariei erantzukizuna beren gain hartzea ere: “Oraindik ez dakigu ezer Sirten bahitutako hamar pertsonen buruz eta hemendik Europari eskatzen diogu lehenbailehen etxera itzuli daitezen. Alicia, Laura, Jenell, Paula, Lucas, Matias, Ana Margarida, Ashraf, Domenico eta Dina berehala aske utzi behar dituzte. Palestinar herriaren askatasuna, bizitza eta existitzeko eskubidea defendatzeko mobilizatzaren diren aurkako kriminalizazioa salatzen dugu”.

Konboiak momentuz bidaia eten duen arren, materiala berreskuratu eta bide berriak bilatzen ari dira, Gazako egoera larria baita oraindik. “Bonbardaketek, suntsipenek eta herri palestinarren aurkako sarraskiek jarraitzen dute. 10.000 preso palestinar baino gehiagok kartzelan jarraitzen dute, horien artean 350 adingabe inguru. Egunero pertsonak hiltzen jarraitzen du Israeliek, zigorgabetasun osoz. Errealitatea geroz eta jasangaitzagoa da Palestinan, Israeliek, berriz, ez ditu erasoak arintzen”, salatu zuen audioarrak aireportura bertaratutako dozenaka pertsonen aurrean.

Horien artean zituen Flotillako kideak, lehenbiziko misioetan egondakoak zein azkenengo honen partaideak. Haien aurrean, iragan larunbateko gertakariak salatzen eta erakundeei erantzukizunak eskatzeko tartea ere baliatu zuen: “Ezin da genozidioa gaitzetsi eta egiten duenarekin negozioak egiten jarraitu. Ezin da Palestinaren egoera salatu eta beren gorputzak zuzenean kausa palestinarren zerbitzura jartzen dituzten pertsona solidarioak jipoitu. [...] Erantzukizuna eta zigorrak ezartzea eskatzen dugu herritar baketsu eta solidarioen aurka indarra erabiltzeagatik eta horiek justifikatzeagatik gezurren eta terrorismoaren aurkako sasi-arrazoiketen bidez, munduko herrialde guztietan, gurean barne”.

Mobilizazioarako deia eginez eta Palestina askearen aldeko aldarria zabalduz amaitu zuen hitzartzea. Senideak, kideak eta lagunak agurtu eta bizitakoa haiekin azkar eta labur partekatu zuen aireportua utzi aurretik. Egun eta aste luzeen ostean orain atsedean hartzea dagokiola pentsatuko luke edonork. Ezagutzen duenak badauki, ordea, belarria maskorrean portuan bizitzekoa baino, itsaso itsaskorrean menturatzekoa dela bera.



Goiko irudian, handian, Alicia Armesto Nuñez Sirten bahitutako ekintzaileetako bat. **Haizea Urkixo**

Elkarrizketa

"GURASOAK BANATZEN SAIATZEN ARI DIRA, GURE DESESPERAZIOA BALIATUZ"

LAUDIO GOIKOA ZENTROKO ZEREGINEN IKASKUNTZARAKO GELAN DAUDE **YOLANDA R., SUSANA G. ETA SUSANA S.**-REN SEME-ALABAK. ERAIKINAREN BALIZKO ITXIERAREN HARIRA EGONDAKO GORABEHERA GUZTIEN INGURUAN MINTZATU DIRA.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Ezer baino lehen, ez dakiten horientzako: Zer da Laudio Goikoa eta zer hezkuntza esparru eskaintzen dira bertan?

Susana G.: Estetika eta ile-apainketako Lanbide Heziketa dago alde batetik, eta Zereginen Ikaskuntzarako Gela bestetik, behar bereziak dituzten gazteentzat.

Nola funtzionatzen du gela horrek?

Susana G.: Hurrek behar bereziak dituztenean, ohiko bidetik joan ordez, gela egonkor batean sartzen zaie Lehen Hezkuntzan, sei urtetatik aurrera. 12 urterekin institutura igarotzen dira, beste gela egonkor batera. 16 urtetik aurrera doaz zereginen ikaskuntzara, helduarora bideratuta. Helburua da egunerokotasunari lotutako hainbat gaitasun eta autonomia bereganatzea: janaria prestatzea, janztea, ohea egitea, mahaia jartzea, garbigailua... Modu horretan, aukera izan dezakete tutoretzapeko etxebizitza batean edo egoitza batean bizitzeko.

Laudio Goikoa itxiko zela iragarri zenetik behin baino gehiagotan jarri duzue mahai gainean gazte horiek herrigunera mugitzeak ondorio negatiboak ekarriko lituzkeela.

Susana G.: Guri maiatzaren 4an pasatu ziguten ohar bat, apirilaren 23an datatutakoa, zeinetan esaten zen irailean ez zela zentro hau berriro irekiko, eraikinaren egoera dela eta, eta Zereginen Ikaskuntzarako Gelako kideak beheko institutura igaroko zirela.

Yolanda R.: Ez ziguten azalpen gehiagorik eman.

Susana G.: Orduan pentsatu genuen: Non sartuko dituzte? Hauek hemen badute ariketak egiteko gela, sukaldea, garbiketa gela, ortua, gela sensoriala... Non sartuko dute hori guztia beheko institutuan jada barrakoi bat baldin badago?

Susana S.: Patioetan ere behar dituzte espazio bereziak. Hemen espazio asko dute euren kabuz gozatzeko, jende pilaketarik gabe. Horrek kalte egingo lieke, estimulu gehiegi jasoko lituzketelako.

Susana G.: Oso espazio egitura-tuak, kontrolatuak eta kontrolagarriak izan behar dituzte, ezuste-koetarako tarte gutxirekin. Nire semeak, adibidez, krisi sensorial bat izan dezake gain-estimulatzen bada, negar egin dezake eta abar. Gauzak hala, ezagutzen dutenean eta ikusten dutenean zer ikaritzen edo urduritzen duen aukera daukate horri aurrea hartzeko.

Baina hori askoz zailagoa da beheko eraikinean. Nola kontrolatzen duzu bertan dauden 700 gazteek ez dutela oihukatu edo salto egingo? Edo autoren batek ez duela klaxona joko? Hemen errazagoa da ingurua askoz lasaigoa delako, eta askoz errazagoa da eurekin lan egitea.

Yolanda R.: Hiru urte daramatzate gure seme-alabek hemen, eta hobekuntza oso nabarmena izan da eurentzat.

"Hiru urte daramatzate gure seme-alabek hemen, eta **hobekuntza nabarmena izan da eurentzat**"

Susana G.: Lehen gazteak institutura pasatzen zituztenean gaitasun gehien zituztenak hona igotzen zituzten sukaldaritzako oinarrizko lanbide heziketa jasotzera. Duela hiru urte irizpidea aldatu zuten, eta behar bereziak dituzten 16 urtetik gorako ikasle guztiak pasa ziren hemen egotera. Teorikoki, 20 urteak bete arte egon behar ziren beheko institutuan, nahiz eta hori ere ez zitzaigun ondo iruditzen. Gela batean egon behar zuten egun guztia fitxak betetzen, zaratak aguantatzen eta krisiak pairatzen. Hobeto daude hemen.

Susana S.: Duela hiru urte norbaitek begi onez ikusi zuen eurak hemen egotea. Norbaitek oniritzia eman zion eraikinari.

Yolanda R.: Harritzen gaituena da duela hiru urte dena zegoela ondo eta orain, bat batean, ez dela horrela. Hori da ulertzen ez duguna.

Susana G.: Hasieran bi milioi euro behar ziren azpiegitura konpontzeko. Gero esan ziguten ezetz, konponketa batzuekin jarraitu zitekeela, eta orain zalantza dugu ea zerbait egingo duten ere.

Astebete daramazue Laudio Goikoaren itxieraren aurka mobilizatzen, eta hainbat mugimendu egin dituzue ordutik hona. Zein da egoera une honetan?

Yolanda R.: Etengabe aldatzen ari da...

Susana S.: Atzetik ari dira lanean.

Elkarrizketa

Hezkuntza Saila ez da zuzenean harremanetan jartzen Institutuko zuzendaritzarekin eta ez die dituzten asmoen inguruan informatzen. Edo, informatzekotan, gero gurasooi beste zerbait esaten digute. Beste zentro batzuk eskaintzen dizkigute, hori oraindik ikusteke dagoen arren. Ikusten duguna da banatu nahi gaituztela.

Susana G.: Banaka ari dira gu neurtzen. Guk nahi dugu bilera bat egitea guraso guztiak Hezkuntza Sailarekin, azal diezaguten zeintzuk diren dituzten asmoak. Hemen inbertituko ez badute, nahi dugu Laudioko beste gune batean beste espazio bat atontzea, erreferentziazkoa izango dena eskualde osoarentzat.

Susana S.: Hala esan zuten eurek duela hiru urte: Laudio Goikoan inbertitu nahi zutela erreferentziazko zentro bat garatzeko. Amurrio eta Orozkotik autobus bana datoz gaur egun.

Susana G.: 14 gazte daude gaur egun, eta datorren ikasturterako 18 daude aurreikusita.

Yolanda R.: Eta atzetik ume asko datoz behar bereziekin. Arazo handi bat dago, ikusi nahi izan ez dena eta ez dena bideratzen jakin. Inprobisazio batetik bestera egin dute salto. Uste dut ez dela aurretiazko

ikerketan lanik egin jakiteko zenbat haur dauden, zer adinekoak, zer behar dituzten...

Susana G.: Haurrak agertzen diren heinean doaz toki batean edo bestean sartzen, berdin zaie Laudio, Amurrio edo Gasteizen den.

Yolanda R.: Laudioko haur asko daude Gasteizen.

Susana G.: Banan-banan eskaintzen badizkigute aukerak, bakoitzak gurea begiratzen dugu. Baina orain saiatzen ari gara erreferentziazko zentro bat aldarrikatzen, baldintza guztiak beteko dituen ezgaitasun mota guztietarako.

Yolanda R.: Gurasoen desesperazioaz baliatzen dira. Niri, adibidez, apirilaren 27an jakinarazi zidaten nire semeak ez zuela jarraituko, ez zitzaiolako urtebeteko luzapena eskainiko, beti eman den arren. Ni etsituta nago ez dakidalako hurrengo ikasturtean nire semea non sartu, eta desesperazio horren erdian agian datoz eta esaten didate Gasteizera eramateko, eta baiezkoa ematen diet, beste aukera semea urtebetez etxean sartuta izatea delako. Horrekin jokatzeari diru, basakeria bat da. Ordubete behar dute Gasteizera joateko eta beste bat itzultzeko.

Susana G.: Hori bada beste meloi

bat ireki beharko zenuketena: zer gertatzen den gazte hauekin eskola garaia amaitzen denean...

Yolanda R.: Orain asko hitz egiten da Laudio irekiko den eguneko zentroaren inguruan. Oraindik ez da inauguratu, baina okupatuta dago jada.

Susana G.: Hamasei plaza baino ez dituzte atera, gazte asko daudenean behar bereziekin. Gainera, bertan 20 urtetik 64ra daude. Orain jaiotzen ari diren haurrak 20 urte betetzen dituztenean okupatuta jarraituko du, ez gara horretaz konturatzeko ari...

Yolanda R.: Nire semeak jarraitu ezingo zuela esan zidatenean pentsatu nuen: "Beno, eguneko zentroa dago behintzat". Baina Udalera jo eta gizarte laguntzailearekin hitz egin nuenean konturatu nintzen hamasei plaza direla: zortzi dependentzia handiko pertsonentzat eta beste zortzi autismoa duten haurrentzat. Denak daude okupatuta, Gasteizera mugitu dituzten pertsonak izango dutelako lehentasuna. Hau da, nik une honetan ez dut nire semea non sartu.

Susana G.: Gainera, eurek esaten dizuten tokian sartu behar duzu, ezetz esaten baduzu zerrendako azken postura zoazelako.

"Ni etsituta nago ez dakidalako hurrengo ikasturtean nire semea non sartu, eta desesperazio horren erdian agian datoz eta esaten didate Gasteizera eramateko, eta baiezkoa ematen diet, beste aukera semea urtebetez etxean sartuta izatea delako"

Horren guztiaren aurrean, konponbide kolektiboak behar direla aldarrikatzen duzue, ez?

Yolanda R.: Hori da.

Susana G.: Erreferentziazko zentroak behar ditugu Aiaraldeko gazteentzat, hezkuntza garairako zein gerorako. Hemen daudenean herrira jaisten dira, integratzen dira, erosketak egiten dituzte, jendea ezagutzen dute... eta, bat-batean, 20 urte betetzean Gasteizera mugitzen dituzte. Bertan ez dute inor ezagutzen, familia urrun daukate, ez dute ingurua ezagutzen, gaixotzen badira euren gurasoak (agian 70 urte izan ditzaketenak) joan behar dira euren bila Gasteizera, medikura joan behar badira egun osoa galtzen dute... Gero diote autistak ezin direla ezgaitasun intelektuala dutenekin egon. Baina batera daude uneoro, elkarrekin hazi dira gela egonkorretan.

Susana S.: Ez dute errealitatea ezagutzen. Eurentzako egokia ez den zerbait eskaintzen digute.

Yolanda R.: Eurentzat ez dira pertsonak, zenbakiak baizik. Zenbakiak eta dirua. Gutxietsiak sentitzen gara. Gu gara kaltetutakoak, lehen eskuko informazioa izan beharko genuke, eta ez dugu. Baina ez guk ezta zuzendaritzak edo irakasleek ere.





Araba Euskaraz 2026 guneen mapa eta egitaraua



10:00 Aresketa Ikastolan
Hasierako ekitaldia

Egun osoan zehar Juan de Urrutia plazan eta San Anton plazan Araba Euskaraz azokak

10:30 Amurrioko pilotalekuan
Arabako Herriarteko Euskal Pilotako txapelketaren finalak

10:30 Kun-Kun Batukada
11:00 Amurrioko Txistulariak
12:00 Elektropikala elektrotzaranga

1 *Bihotza* **PARKEA**

11:30 Araba Euskaraz dantza topaketa!

Aiara Dantza Taldea
12:30 Herri Kirolak

Vital Fundazioaren eskutik

13:00 Ugarte Otxotea

14:00 Belgorri

16:00 EH Sukarra

17:30 Akerbeltz

TAILERRAK ETA JOLASAK

11:00-13:00 Apdemaren txokoa

11:00-14:00 Haurren basoa

11:00-14:00 Berriaren txokoa

Asier Kidam-en gertuko magia

EGUN OSOAN ZEHAR

Euskaltelen kukaña bizikletaz



2 Txinpanta REFOR

11:00 Porrotx eta Marimotots
Arabako Ikastolekin Irri, Kantu eta Dantza
12:30 NUN
Gazte Talent
14:00 Ganibet
15:30 Nafarroa 1512
17:00 Bad Sound

TAILERRAK ETA JOLASAK
11:00-14:00 Argixoren txokoa
Argixorekin jolasean!
11:00-14:00 Kaiku baserri txokoa
Zatoz behia jeztera eta tailerrera!

EGUN OSOAN ZEHAR
Eroski elikadura eskola

3 Taupadak REFOR

12:00 Zunba
Izaskun del Cerro
13:30 Loa eta Laia zuzenean!
15:00 Yogurinha Borova
Amona Molona
17:00 Patxi eta Konpania
Arabako Euskaraz Dantza Plazan

TAILERRAK ETA JOLASAK
11:00-14:00 Kirikiño Aisialdi Taldea Tailerrak eta jolasak
11:00-14:00 Amurrioko Xake Taldea
Xake partidak

EGUN OSOAN ZEHAR
Puzgarriak, Ihobe Klima Azoka eta Makusi gunea

ERRONKA
11:00-14:00
LH 1. gunean
DBH gune guztietan

Hiru gune "taupadak berpiztu" eta Araba Euskaraz jaiaz gozatzeko

Azken asteetan tantaka egitarauaren aurrerapenak eskaini ostean, dagoeneko iragarri dute ekainaren 14rako prestatutako programazio oparoa bere osotasunean. Taupadak berpiztu! lemapean Aresketa Ikastola hauspotzeko baliatuko dute aurtengo hitzordua, goizetik iluntzera arte luzatuko den ekitaldi sortarekin.

Hiru gune

Ikastolan bertan 10:00etan egingo duten ekitaldiarekin emango diote hasiera egunari. Jarraian, Aresketatik herrigunera jaitsiko da festa-giroa. Hiru gune nagusi atondu dituzte Ikastolaren aldeko jaietan bildu dituzten ekitaldi guztiak banatzeko: gune bat parkean eta bi gune Refor kirol-gunearen inguruan. Gune guztietan egongo da jan-edana, beste hainbeste zerbitzuekin batera.

Dantza ikuskizunak, haurrentzako tailer eta jolasak, kalejirak, zunba, Porrotx eta Marimotots, herri-kirol erakustaldiak... adin eta gustu guztientzako jarduerekin osatu dute hiru guneetako egitaraua.

Musika eskaintza zabalak osagarrituko du Araba Euskaraz jaia. Aipatutako hiru guneetan banaturik Euskal Herri luze zabaleko talde ugari izango dira Amurrioko oholtzan: EH Sukarra, Ganibet, Nafarroa 1512, Akerbeltz edota Bad Sound, batzuk aipatzearen. Tokiko uzta ere ez da faltako: Belgorri amurriorek kontzertua eskainiko dute parkean 14:30etan.

Asteburu osoko plana

Antolakuntzatik asteburu osoan Amurriora bertaratzeko deia egin diete Euskal Herriko hamaika txokotatik bertaratu diren milaka lagunei. Horretarako, ekainaren 14tik haratago ere hedatu dute programazioa.

Ekainaren 12an, ostirala, *Kantuz taupadak berpiztu!* ikuskizuna eskainiko dute Amurriko Antzokian. Larunbatean, aldiz, Amurrioko XCO sariketaz, Arabako Herriarte Euskal Pilotako txapelketaren finalaz edota Gazte Asanbladako kideek antolatutako Gazte Egunaz gozatzeko gonbita egin du Aresketa Ikastola-ko hezkuntza komunitateak.



hitz
logopedia

**PROFESIONAL
EUSKALDUNAK
ZURE
ZERBITZURA**

LOGOPEDIA / PEDAGOGIA
FISIOTERAPIA PEDIATRIKOA
OSASUN OROKORREKO PSIKOLOGIA

Arreta goiztiarra (0-6 urte)

araba
euskaraz '26
Taupadak berpiztu!

Karmen kalea 39, 01400 LAUDIO hitz.zentro@gmail.com
Tel.: 94 672 63 91 / 656 74 27 22

Betaurreko eta lentillarik gabe ondo ikusi nahi al duzu?

Gure adituei galdetu!

araba
euskaraz '26
Taupadak berpiztu!

LUYANDOPTICOS

Conoptica

ENKARKI

ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

Eraikuntza, industria, ekitaldiak, lorezaintza eta garbiketa

Gurekin ere, euskeraz!

Arza II industrialdea, LAUDIO · 946 43 00 42 · enkarki@enkarki.net · www.enkarki.net · @enkarki

80 urte zurekin

araba
euskaraz '26
Taupadak berpiztu!

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK

3D ERRADIOGRAFIKAK

Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behe LAUDIO (Araba)
946 723 100



Taupadak berpizteko deia dantzan zabalduko du, Araba Euskarazen aurtengo kantak



Guk eskulturaren inguruan aurkeztu zuten kanta eta bideoklipa. Aiaraldea.eus

Testua Maider Ramirez Martin

Doinu dantzagarri batek jarririko dio soinu banda 2026ko Araba Euskaraz jaiari. Igon Olaguenaga eta Txiki Lora dira kantaren sortzaileak, Ikastolako ikasle ohia eta Ikastolako gurasoa, hurrenez hurren.

Aurtengo edizioaren leloa darama kantak izenburuan: *Taupadak berpiztu!*. Izan ere, “abestiaren letra euskararen biziberritzeko beharrari dei zuzena” dela adierazi dute antolatzaileek. Hala, 1960ko hamarkadako berpizkundea gogora ekarri eta egungo egoerari buruzko hausnarketa egin nahi dute, etorkizunari begira “gogoa eta kuraia” aldarrikatuz. Ekainaren 14ko zita berezia girtzeko, abesti “dantzagarri eta anitza” sortu nahi izan dute. Hori dela eta, saltsa

generoko erritmoak ditu abestiak oinarrian baina hainbat dira nahasten diren doinuak: alboka, trikia, tronpeta, tronboia eta perkusio latinoak, besteak beste.

Igon Olaguenaga eta Txiki Lorarekin batera, hainbat dira kantan parte hartzen duten musikariak, hala nola Amaia Santamaria (ahotsa), Rodrigo Ulises (perkusioa), Yago Salorio (baxua), Marcos Ortega (tronpeta), Fernando Blanca (tronboia), Ibon Koteron (alboka), Joseba Tapia (trikitia) eta Iñaki Otxondorena “Morro”(letra eta ahotsa). Ikastolako gaztetxoek ere haien doinurik onenak eman dituzte koruetan. Eneko Martinez Aresketako ikasle ohia arduratu da bideoklipaz, eta “ikastolako sorreratik lanean jardun duen komunitate osoari” egin nahi izan dio aitorza.

Amurrioko Araba Euskaraz jaiari buruz solasean, ikasleen eta zuzendariaren artean



Aiaraldea Komunikabideak ekoiztu du *Gelatik at!* podcast saioa. Aiaraldea.eus

Testua Txabi Alvarado Bañares

Aresketa Ikastolako hainbat ikaslek Itxaso Ugarte zuzendaria elkarrizketatu zuten iaz Aiaraldea Komunikabideak ekoiztutako *Gelatik at!* podcast saioan. Une horretan oraindik ez ziren jakitera eman jaiari lotutako hainbat kontu (egitaraua edota kanta, adibidez), baina beste hainbat gai izan zituzten hizpide.

Ugarterentzat “kristoren ohoera” izan da Araba Euskaraz

Amurrion antolatzea. Bere hitzetan, jai hori da “Arabak behar duen arnagune horietako bat”. “Euskararen erabilera gero eta gutxiago igartzen dugun garai hauetan, Araban euskaldunok euskaraz hitz egiteko aukerak behar ditugu, eta horietako aukera ederretako bat Araba Euskaraz da”, aldarrikatu zuen zuzendariak.

Bere hitzetan, hori izango da ekainaren 14ko jaiaren helburu nagusietako bat: euskararen erabilera areagotzea he-

rrian, “oso hizkuntza erabiltzaile gutxi” daudelako. Horrez gain, Aresketa Ikastolaren proiektuari sostengua ematea ere izango du xede festak. Izan ere, Ugartek nabarmendu duenez, ia 50 urte bete ditu Amurrioko ikastolak, eta horrelako ospakizunen beharra du “beste 50 urte sendotasunez betetzeko”.

Entzun podcasta!



Aiaraldea Komunikabidearen zuzeneko emisio berezia Araba Euskarazen

Testua Txabi Alvarado Bañares

Aiaraldea Komunikabideak zuzeneko jarraipen berezia egingo du Araba Euskaraz jaiari begira. Esku artean duzun gehigarri hau da lehen urratsa, baina ez baka-

rra. Datozen egunetan ekimenari lotutako hainbat eduki plazaratuko ditugu Aiaraldea.eus atarian, ekainaren 14ra begira motorrak berotzeko. Egun horretan, aldiz, komunikabideko kideak goizetik iluntzera arte egongo gara Amurrion jaiaren nondik norako guz-

tiak jasotzen. Horrez gain, gune bat atonduko dugu Guk eskulturaren parean 12:00etatik aurrera, zuzeneko emisio berezi bat eskaintzeko. Ordubete inguru iraungo du saio berezi horrek, eta hainbat gonbidatu igaroko dira mikrofonoen aurretik.



Txakolin Eguna 2026



JATORRI
ARABAKO
TXAKOLI
DENOMIN



Txakolin Eguna 2026



“Txakolin Egunean musikari gehiago egongo dira gurekin oholtza gainean, kontzertu berezia izatea nahi dugulako”

MUSIKA TALDE BERRIA JAIO DA ESKUALDEAN: ERREKADA. LAU KIDEEK OSATZEN DUTE: **GORKA JIMENEZ** AHOTS NAGUSIAN ETA GITARRA ERRITMIKOAN, **IKER TORIBIO** GITARRA SOLISTAN, **IMANOL VELASCO** BAXUAN ETA **ALEX YARZA** BATERIAN. ESPERIENTZIA DUTE ESTUDIO ETA OHOLTZETAN, BESTE HAINBAT PROIEKTUTAN PARTE HARTU BAITUTE AURRETIK. EUSKARAZKO MUSIKA ESZENARA SOINU INDARTSUA ETA GORDINA EKARTZEKO PREST DAUDE ORAIN.



Testua **Maider Ramirez Martin**

Cuatro Bancos taldetik zatozte. Zerk eraman zaituzte etapa berri hau abiatzera?

Otsailean Cuatro Bancos gelditu genuenetik azarora arte beste proiektu batzuetan murgilduta egon gara. Azara aldera piztu zitzaigun proiektu serioagoa egiteko gogo, gure funtsa galdu gabe.

Zein da Cuatro Bancoseko etaparen eta oraingo berri honen arteko aldea?

Bereziki musika estiloari dagokionez, rapa alde batera utzi dugula eta orain beste estilo batzuk jorratzen ditugu-

la. Hau askoz zuzenagoa da, eta konposizio aldetik aldaketa gehiago ditu. Hala ere, uste dugu Cuatro Bancosek zuen esentzia berezi hori mantendu dugula, baina beste estilo melodikoagoa eta indartsuagoa eramanda.

Nondik dator Errekada izena?

Talde baten izena aukeratzea beti da erabaki nahiko zaila. Lehen momentutik argi izan genuen gure inguruenari eta Nerbioi ibaiari erreferentzia txiki bat egin nahi geniola, eta horregatik eta beste gauza batzuegatik, Errekada izen egokiena iruditu zitzaigun.

Nola definituko zenukete taldearen soinua?

Lehen momentutik argi izan genuen nahiko ekoizpen

gordin eta organikoa nahi genuela, eta hala izan da. Soinu indartsua eta gordina lortu dugu, baina publiko guztientzat dela uste dugu. Estandar afinazioan jotzen dugu, eta horrek eragiten du hain mainstream ez diren zatiak jende guztientzat atseginoak izatea, gogortasuna galdu gabe.

Hardcoreagoak diren abestiak beste estilo leunago batzuetako abestiekin nahasten dira diskoan baina guztiek mantentzen dute esentzia bera, riff xume eta zuzenekin.

Lehen diskoa kaleratu berri duzue: Ur azpiko ahotsak. Nolako izan da prozesua?

Nahiko azkarra izan da dena, baina, egia esan, presarik gabe eta inolako presiorik gabe aritu gara lanean. Egia da, ordea, azken hilabete hauetan lan itzela egin dugula,

Txakolin Eguna 2026

bereziki konposizioari dagokionez. Behin hamabost bat abesti izan genituenean, diskoan sartuko zirenak eta kanpoan geratuko zirenak erabaki genituen. Hurrengo pausoa grabazio-estudioa erabakitzea izan zen. Hainbat aukera aztertu genituen, baina oso argi genuen egin dugun lan horri behar zuen denbora eskaini nahi geniola eta horregatik erabaki genuen Gauda estudioan grabatzea, bertan ostatu hartzeko aukera izateaz gain, ia 12 egunez diskoan bakarrik zentratuta egoteko aukera ematen zigulako. Gainera, estudiotik jaso dugun tratu harrigarria azpimarratu nahiko genuke, bai Asier Zubelzu eta baita Iker Villaren aldetik ere, disko honen ekoizleak izan baitira. Ia 12 egunez aritu gara haiekin lanean, eta, neurri handi batean egin duten lanagatik, posible egin dute disko hau argitaratzea.

Badago abestiren bat bereziki taldearen estiloa definitzen duena edo mimo berezia diozuenena?

Ziztadak abestiari mimo berezia diogu, horregatik da diskoaren lehen abestia. Duela ia 2 urte Cuatro Bancosekin konposatutako abestia da, baina ez genuen inoiz bukatu eta hainbeste gustatzen zitzaigun, ezen ideia berreskuratzea eta amaitzea erabaki baikenuen, orain egiten dugun estilora egokituz. Taldearen esentzia oso ondo definitzen duen abestia dela uste dugu.

“Abestiak atera ahala, disko osoa euskaraz egitearen ideia gustatu zitzaigun eta horrela izan da, naturalki”

Cuatro Bancosen ez bezala, Errekadaren abesti guztiak euskaraz dira.

Instrumentala den interludioa izan ezik, diskoko abesti guztiak euskaraz dira, bai. Alde batetik, euskara sustatzeko eta bestetik, denbora dezente generamalak euskarazko letren ideiekin.

Abestiak atera ahala, disko osoa euskaraz egitearen ideia gustatu zitzaigun eta horrela izan da, naturalki. Gainera, letrak konposatzerako orduan gaztelania baino askoz poetikoagoa eta politagoa dela uste dugu.

Txakolin Egunean oholtza gainera igoko zarete.

Bai, esan beharra dago azken orduko kontua izan dela gainera, Gazte Egunerako [ekainak 13] kontzertua itxita geneukan jada. Duela 3 aste edo, Txakolin Egunean jotzeko proposamena jaso genuen eta egia esanda baiezkoa berehala eman genuen.

Txakolin Eguna oso egun garrantzitsua da Amurrio herriarentzat eta guretzat baita ere, etxean jotzea eta horrelako egun batean nahiko berezia da.

Kontzertuari begira, nahiko gogotsu gaude. Uda honetarako prestatu dugun kontzertua eskainiko dugu, musikari gehiago egongo dira gurekin oholtza gainean, kontzertu berezia izatea nahi dugulako.





Zazpi upategiz osatutako industria txikia



Beldui Txakolina

Kokalekua: Beldio, Laudio
Telefonoa: 685 75 76 48
Emaila: infobeldui@gmail.com
Webgunea: www.beldui.com

Gardean kokatutako upategia da Beldui. 964. urteko idazkien arabera, txakolinaren ekoizpena ohikoa zen garai hartan eskualdean. Testu horietan Gardeako monastegiari egiten zaio erreferentzia, mahasti batzuk eman zizkiotelako dohaintzan. Mila urte beranduago, toki berean sortu eta errotu da Beldui.



Tantaka Wines

Kokalekua: Maskuribai kalea, Z 12 pabilioia, Amurrio
Telefonoa: 656 71 47 09
Emaila: info@tantaka.eus
Webgunea: www.tantaka.eus

Arrastarian kokatutako upategia da Tantaka Wines, eta bertan dauden mahastietako fruituekin ekoizten dute ardoa, eskuz, nekazaritza ekologikoa ardatz. Fermentazioa, aldiz, altzairu herdoilezinezko biltegietan egiten dute.



Artomaña Txakolina

Kokalekua: Masalarreina kalea, Artomaña
Telefonoa: 674 331 356
Emaila: turismo@artomanatxakolina.com
Webgunea: www.artomanatxakolina.eus

Artomaña Txakolina SLk 1988. urtean hasi zuen bere ibilbidea, Asociación de Productores Artesanos de Txakoli de Alava - Arabako Txakolina elkartearen sortu zenean. Ondoren, upategiak paper esanguratsua izan zuen Arabako Txakolina Jatorrizko Izendapenaren sorreran.




Txikubin Upategia

Kokalekua: Murga 39, Aiara
Telefonoa: 679 27 60 23

Emaila: pazverastegui@gmail.com
Webgunea: www.txakolixikubin.com

Murgako dorrean kokatutako upategia da. Eraikin hori XIII. mendean sortu zen eta, garaiko dokumentuetan aipatzen denez, dorrearen inguruetan mahastiak zeuden, eta baita ardoa ekoizteko azpiegitura ere. Jauregia familia beraren eskuetan mantendu da mendez mende, gaur egun arte.





Astobiza upategia

Kokalekua: Jandiola auzoa 16, Okondo
Telefona: 945 89 85 16 / 607 40 03 21
Emaila: comercial@astobiza.es
Webgunea: www.astobiza.es

Okondon kokatutako upategia da. Bertako mahastietako fruituekin ekoizten dute ardoa. Hainbat proiektu egikaritu dituzte, eta urrats esanguratsuak eman dituzte produktua nazioartean zabaltzera begira.



Garate Txakolina

Kokalekua: Garate gaina, Laudio
Telefona: 659 06 03 91
Emaila: josuegoitz@gmail.com
Webgunea: www.txakoligarate.com

Laudion kokatutako txakolindegia familiarra da. Iragan mendetik darama ardoa ekoizten, Hondarribi Zuri, Zerratia eta Riesling motako mahastiekin. Josu Egoitz Zubiaurrek kudeatzen du gaur egun upategia, txakolina egitera dedikatzen den familia bereko 4. belaunaldia.



Bat Gara Upategia

Kokalekua: Urtaran auzoa 21, Lezama
Telefona: 609 88 48 26
Emaila: info@batgara.com
Webgunea: www.batgara.com

Zaharbertzaile baten eta abeltzain baten arteko adiskidetasunetik sortu zen Bat Gara upategiaren proiektua Lezaman. Hiru txakolin mota ekoizten dituzte, Hondarribi Zuri Zerratia mahats mota erabiliz gehienbat.

Txakolin Eguna 2026



*Txakolina
ulertzeko
beste era
bat*

info@batgara.com
www.batgara.com
609 884 826



Garate

Txakoli

*4 belaunaldi
betiko esentzia*

Aiaraldeko Txakolinaren ibilbide barruko upategia

Goienuri 20, LAUDIO · 659 06 03 91
www.txakoligarate.com @txakoligarate

Enoturismoa
zatoz eta
ezagutu gure
proiektua



ARTOMAÑA

Txakolina

ENOTURISMOA

Bisita Gidatuak

674 331 356

www.artomanatxakolina.eus



Masalarrena z.g. 01468, Artomaña

ARDANTZE JATETXEA

Laster wine-bar berriaren irekiera

665 747 263

restxakolinabodas@gmail.com



Txakolin Eguna 2026



“NIREZAT
GARRANTZITSUA
ZEN TXAKOLIN
EGUNEAN
ARNASTEN DEN
GIROA ISLATZEA”

SARA FRAILE GOMEZek (Amurrio, 2000) OSATU DU AURTENGO TXAKOLIN EGUNeko IRUDITEGIA. KARTELAZ GAIN, ZAPIAK ERE DISEINATU DITU EGUNERAKO.



Testua eta argazkiak **Txabi Alvarado Bañares**

Aurtengo Txakolin Eguneko kartela eta iruditegia osatu dituzu. Nolako izan da sorkuntza prozesua?

Betidanik bizi izan dudana jai bat da Txakolin Eguna. Niretzat garrantzitsua zen egun horretan arnasten den giroa islatzea; ez soilik ilustrazioan, baita koloretan edota konposizioan ere.

Nire buruari galdetu nion ea zer zen niretzat Txakolin Eguna. Uda usaina du, egun eguzkitsua da, txakolina dago erdigunean... baina poztasunari lekua emateko tokia ere bada. Uste dut erreferentziarako egun bat dela Amurrioren eta eskualde osoan.

Sortu dudana iruditegian presente daude parkeko belarra, zeinetan kuadrilla guztiak batzen diren eta giroa sortzen den. Txakolina ere dago. Kolore aldetik aniztasuna eta poztasuna islatu nahi izan ditut. Gainera, diseinu honek ere aukera eman digu zapiak sortu eta iruditegia zabaltzeko.

Aipatu duzunez, txikitatik ezagutu duzu Txakolin Eguna. Zer nolako ospakizuna da zuretzat?

Txikitari egun osoa ematen genuen kanpoan. Oso egun libre zena: jolasten, dantzatzen... igarotzen genuen.

Nagusitu naizen heinean beste alde batetik disfrutatu dut. Bada apur bat ezkontzetan bezala: pertsona guztiak daude ondo eta gustura egoteko aurretiko jarrerarekin. Egun maitekorra da.

Honako hau ez da egiten duzun lehenbiziko lana. Noiz eta nola sartu zinen diseinuaren esparruan?

Eskertzen dut galdera hau. Egia esan, diseinu grafikoa ikasi eta gero zuzenean sartu nintzen estudio batean lanean, eta une jakin batean ikusi nuen bertan nire denbora amaitu egin zela. Orduan nire kabuz hasi nintzen lanean, eta autonomo moduan nabil orain. Jaialdiarako iruditegiak sortzen ari naiz. Bilbon ospatzen den Fashion Revolution ekimeneko irudiak sortu ditut aurten eta baita iaz ere, adibidez. Horrez gain, autonomo moduan branding-a garatzen dut, Kooperarako ere egin dut lan, webguneak diseinatzen ditut...

Noiz eman zenuen urrats hori?

Iazko urtarrilean utzi nuen lana eta azaroan hasi nintzen autonomo moduan.

Merezi izan du?

Bai. Uste dut bat datorrela nire bizitzarekiko begiradarekin.

Zaila da enkarguen eta zure sorkuntza propioaren arteko oreka mantentzea?

Lehenbizi, saiatzen naiz nire burua ez presionatzen. Badaude une zehatz batzuk zeintzuetan gehiago zentratu behar naizen dirua ematen didaten proiektuetan eta ez dudana niretzako denborarik.

Kasu horietan ez dut nire burua zigortzen proiektu propioak garatzen ez egoteagatik. Nik asko konfiatzen dut intuizioan eta nire momentuetan. Ez dut gorputza presionatuko bestela zentzu guztietan blokeatuko bainaiz. Nahia-gu dut denbora dudana heinean gauzak ateratzea, baina presio gabe.

Baduzu proiektu pertsonalik une honetan esku artean?

Banago ilustrazio proiektu bat garatzen, *Txoko txikiak* izenekoa. Lore prentsatuak eta ilustrazioa konbinatzen ditut bertan. Hori da nire burua argitu eta garbitzeko modu bat.

Enkarguak ere egiten ditut. Amurrioren, egia esan, harre-ra ona izaten ari naiz. Grafikoki ere baditut nire proiektuak baina oso denbora gutxi daramat autonomo moduan eta kostatzen zait denbora eskaintzea. Baina gogoz nago eta seguru nago egingo dudala.

Gustatzen zaigun hori egin behar dugu, eta horrela dena ondo aterako da.

EKAINA

FAKTORIAN



13, zapatua

10:30 · Iruñean
TOPAKETA/
EUSKARA ZUBI GARA
AISIALDI HEZITZAILEEN
TOPAKETA IRUÑEAN
DOAKOA
#KOMUNITATEFAKTORIA
#EUSKARAFAKTORIA

13, zapatua

17:00 · Iruñean
TOPAKETA/
**EUSKALTZALEON
MARTXA**
AUTOBUSEAN JOATEKO
TXARTELAK GURE WEBGUNEAN
SALGAI
#KOMUNITATEFAKTORIA
#EUSKARAFAKTORIA



19, barikua


17:00-19:00 · Faktorian
HAURRENTZAKO LUDOTEKA/
UR LUDOTEKA
DOAKOA
#FAMILIENFAKTORIA
#HEZKUNTZAFAKTORIA

**BASA ZIKLOKO
BEKA**
Apiriletik ekainera
MIKEL AYLLON



20, zapatua

10:00 · Faktorian
SOLASALDIA/
**BATZAR OROKORRA +
F2035 GOGOETA
ESTRATEGIKO SAIOA**
DOAKOA
#GOGOETAESTRATEGIKOA
#AMESTEKOFAKTORIA



25, eguena

19:00 · Faktorian
BASA ZIKLOA/
**BASA ZIKLOAREN
AMAIERA FESTA**
ZIKLOAN ZE HAR
IZANDAKO
HAUSNARKETAK ETA
IKASKUNTZAK
PARTEKATZEKO BERTSO
SAIOA
BAZKIDEEK 8€
EZ-BAZKIDEEK 10€
LANGABETU ETA
IKASLEEK 6€
#KULTURFAKTORIA
#SORMENFAKTORIA

**KOKORIKOREN
UDAKO ESKAINTZA
- 2026 -**

**BASOAN EUSKARAZ
JOLASEAN (haurrentzat)**
Ekainean eta uztailean

**FAKTORIAN IKERTZAILE
BIHURTU (haurrentzat)**
Abuztuan

**AIARALDEA IBILIZ IV. UDALEKU
IBILTARIA (nerabeentzat)**
Uztailean

Izena eman:
www.labur.eus/
faktoriaudalekuak2026



AIARALDEA EKINTZEN
**FAK
TO-
RIA**

WWW.FAKTORIA.EUS
INFORMAZIO GEHIAGORAKO:
HARPIDETU GURE WHATSAPP
KANALERA!



Txakolin Eguna 2026

Ohiko eskemarekin eta zenbait berrikuntzekin ospatuko dute Txakolin Eguna ekainaren 7an

Aurkeztu dute Txakolin Egunaren XXVII. edizioa. Ekainaren 7an txakolinaren hiriburu bilakatuko da Amurrio, festa eta gastronomia uztartuz.


Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Tik-tak... geroz eta gutxiago falta da Amurrioko urteko zita esanguratsuenetako baterako, Txakolin Egunerako alegia. Maiatzaren 19an egin zuten aurtengo edizioaren xehetasunak aurkezteko prentsaurrekoa. Ekainaren 7an izango da zita, eta ohiko eskema mantenduko du, nobedade txiki batzuk egongo diren arren.

11:30ean hasiko da egitaraua, Udaletxean egingo den ekitaldi instituzionalarekin. Aurtengo enbaxadoreak izendatuko dituzte bertan. Aurreratu dutenez, Alberto Molinero sukaldariak eta Jorge Rodriguez sommelierrek jasoko dute aurtengo aitortza hori. Biak ala biak dira La Roca jatetxe kateko kideak, lehena Michelin izarra dauka eta bigarrena Euskadiko Sommelier Onena izendatu zuten 2024an eta 2025ean.

“Bi profesionalak gertuko produktuarekin duten konpromisoa eta Arabako txakolinaren hedapenean egiten duten ekarpena” goraiatu ditu Udalak.

12:00etan izango da txupinazoa, eta jarraian abiatuko da jarduera maratoia. Ohikoan bezala, bi gune egongo dira. Ekoizleen eta artisauen 30 postu egongo dira Guk pasealekuan, eta txakolindegien postuan zein gastronomia eskaintza egongo dira parkean. Nabarmendu dutenez, berrikuntza



Aurkeztu dute 2025eko Txakolin Eguneako egitaraua. Aiaraldea.eus

batzuk egongo dira eskaintza horretan. Oholtza ere egongo da bertan, eta bertan joko dute eguna giroteaz arduratuko diren bi taldeak: Errekada hardcore lautokote amurriarrak lehenbizi eta Oxabi erromeriak gero, giroa arratsaldeko zortziak arte luzatuz.

Aurreko urteetan bezala, tiket bidez eskuratu ahalko dira moka-duak eta txakolin tragoak parkean.

Txakolidealava.eus webgunean eta Amurrioko turismo bulegoan eskuratu ahalko dira aurretik,

bezperako gauera arte, eta egunean bertan ere lortu ahalko dira fisikoki, parkeko sarreran egongo den postuan. Zehaztu dutenez, prezioa 2 eurokoa izango da txartel bakoitzeko, eta “promozio-pakak” erosteko aukera egongo da.

270.000 botila

Festatik harago, iazko mahats-bilketaren datuak ere eman dituzte Arabako Txakolina Jatorrizko Izendapeneko kideek. Zehaztu dutenez, 441.696 kilo

270.000 botila inguru ekoiztu dituzte aurtengo uztan

mahats jaso zituzten iaz, aurreko urtean baino %22 gehiago, eta 270.000 botila inguru ekoiztu dituzte. Nabarmendu dutenez, ekoizpenaren %30 nazioartera joango da, Estatu Batuetara, Finlandiara, Mexikora, Japoniara, Kanadara, Erresuma Batura edota Alemaniara.

Aiaraldeko zazpi upategik osatzen dute gaur egun Jatorrizko Izendapena. 38 langile dituzte, eta 100 hektarea inguru kudeatzen dituzte.



AIARALDEA
HELMUGA PAISAIA DA

Ezagutu Aiaraldea,
sentitzen den helmuga

mendi arteko bideak, historiadun ondarea eta pauso edo pedalkada bakoitza laguntzen duten zaporeak

EKAINAREN 14AN EUSKARAREN HIRIBURU BILAKATUKO DA AMURRIO, ARESKETA IKASTOLAREN ALDEKO ARABA EUSKARAZ JAIAREN 2026KO EDIZIOAN. JAI EGUNAK AMURRION “EUSKARARI BULTZADA EMATEKO” PROBESU NAHI DU UDALAK.

Gure hizkuntza balioan jartzeko eguna izango da Araba Euskaraz jaia

Hilabete biziak dira hauek Amurrion. Udaberriarekin batera dozenaka ekitaldi loratu dira udalerrian, elkartegintza zukutu eta herria bizitzeko. Agendan gorritz markatutako egun horietako bat da datorren ekainaren 14a. Izan ere, Araba Euskaraz jaiaren 2026ko edizioa hartuko du Amurriok beso zabalik.

Euskarari bultzada

Amurrion euskarari bultzada berri bat emateko aprobetxatu nahi du Udalak datorren ekaiaren 14ko jaia. “Hitzordua probestu nahi dugu euskara sustatu eta gure hizkuntza balioan jartzeko”, azpimarratu du Txerra Molinuevo alkateak.

Amurrioko Udalak “ahalegin betean” ari da Araba Euskaraz jaiaren aurtengo edizioaren antolakuntzan laguntzen, Molinuevo alkateak adierazi duenez. “Azpiegituran soilik ez, Araba Euskaraz Amurrion ospatu den aldiro egin bezala, diru-laguntza berezitua ere prestatu dugu, ekarpena egiteko asmoz”.

Udalak balioan jarri nahi izan du Aresketa Ikastolak azken 49 urteetan egindako bidea. “Euskarazko kalitatezko hezkuntza baten aldeko apustua egin zuten eta horretan berretsi dira urte hauetan guztietan”, adierikatu du Amurrioko alkateak. “Gaur egun ere Ikastolen sorrerako grin horrek bizirik jarraitzen du”. Udaletik eskerrak luzatu nahi izan diote Araba Euskaraz antolakuntzan murgilduta dagoen Aresketa Ikastolako komunitate guztiari: “Jakitun



gara zer nolako lana ari diren egiten Ikastolan; ikasleekin, gurasoekin...”

Hausnarketa betean murgilduta egon dira Ikastolen aldeko jaiak, eta aurtengo Araba Euskaraz jaiak aurreko edizioen festa-dimentsio erraldoia izango ez bada ere, milaka pertsona bertaratzea aurreikusten dute. Ikastolaren aldeko festak sortuko duen jende pilaketaren aurrean, “aparteko gorabeherarik ez egotea” eskatu du Amu-

rrioko alkateak. Kontrara “euskararen aldeko egun zoragarri batez gozatzeko gonbita” luzatu die Amurrioko alkateak udalerriko bizilagunei zein kanpotik etorriko diren guztiei.

Inguruko herri eta eskualdeetatik bertaratuko direnei Amurrion garraio publikoan hurbiltzeko deia egin du Molinuevok: “Autoentzako aparkalekuak atonduko dira, baina nagusiki garraio-publikoan bertaratzeko deia zabaldu nahi dugu”.

“Euskararen aldeko egun polita opa diegu Amurrion bertaratuko direnei”

Udaberri bizia

Ekintzaz beteriko udaberria izaten ari da honakoa. Aiara Fest atzean utzi berri Txakolin Eguna XXVII. edizioa ate jokatuko. “Amurrion bertaratu nahi duenak ez du aitzakiarik, asteburu dugu zerbait: Txakolin Eguna, Orbea Gravel Aiaraldea, Apdemaren jaia, Gazte Eguna, Araba Euskaraz, Ahuntz Eguna, Mendiko Eskolaren urteurrena, Amurri Harro...”, azaldu du Molinuevo alkateak.



Aresketa Ikastolaren bihotz taupadak

Ikasle, irakasle, guraso, langile... ehunka lagunek osatzen dute Aresketa Ikastolaren hezkuntza komunitatea; milaka taupada bihotz bakarrean. Araba Euskaraz ate-joka dagoen honetan, bertako lagunak iritzi eta gogoetak jaso ditugu datozen orrietan.



AMURRION EUSKARAZ BIZI, IKASI, JOLASTU ETA LAN EGIN NAHI DUGULAKO!

Itxaso Urreta

Aresketa Ikastolako ikasle-ohia eta ama

Ikastola gure bizitzaren zutabe garrantzitsu bat da. Hementxe ikasi dugu, heziak izan gara eta bizitza osoan iraungo duten lagunak ezagutu ditugu.

“Hemen” zeren leku honetara iritsi aurretik leku askotan “egon” behar izan zuen gure ikastolak.

Urte haiek borrokarako urteak izan ziren. Gaur egun dugun ikastola eraiki aurretik, hain erosoak ez ziren eraikuntzetan egon ginen, hotza pasa genuen geletan eta itokinak ere euki genituen, baina, umeoi ez zitzaigun axola, gu zoriontsu ginen ikastolan eta horrek indarra ematen zigun —guri zein gurasoei— merezi genuen ikastola lortzeko antolatu behar izan genituen manifestaldiei eta agerraldiei ekiteko.

Ez dugu inoiz ahaztuko adreiluekin egindako manifestazioa. Asteak pasa genituen “adreiluak” zirela-eta kanta klasiko baten doinua erabiliz letra propio egokitu eta abesten.

Beraz, mezu bat luzatu nahi dizuet zuoi guztioi: mesedez, baloratu, maitatu eta errespetatu itzazue zuen gurasoei gaur arte iraunaraztea hainbeste kostatu zaizkien hizkuntza, kultura, herria ...

Hau guztia lortzeko ezinbesteko laguntza ematen duen “Araba Euskaraz” ekimena antolatzen segitu behar dugu, gure ikastolak duen proiektuak merezi eta behar duen bulkada emateko laguntzen digulako. Lanean segitu behar dugu hau guztia helburu bakar batekin egiten baitugu: Amurrión euskaraz bizi, ikasi, jolastu eta lan egin nahi dugulako!



TAUPADA BERPIZTEKO BULKADA

Eneko Aldai

Aresketa Ikastolako aita eta Errektore Kontseiluko lehendakari-ohia

Maiatzaren ondarreran, eguzki gozotan baino bero zapa itogarrietan murgildurik, ate joka dugu taupadak berpizteko garaia. Huraxe da, Amurrión ospatuko den Araba Euskaraz aurtengo leloa eta, horren harira, gogoz eta adoretz bildu da berriz Aresketa Ikastola.

Amurriok hainbatetan hartua du ikastolen aldeko jai antolatze ardurak eta ekitaldi bakoitzak utzi ditu gure oroimenetan iltzaturik bere ikuspuntu, irudi, kolore, zein zapora bereizgarriak. Komunitate oso baten garaian-garaiko bulkada, sentipen eta grinaren ondorioz gudan lurrindurik geratzen diren kanten doinu itsaskorak, bizitako ekitaldien emozio festa eta auzolan antolatutako ekimenek soilik marrazten dituzten irribarre zintzoak.

Orain sei urte bezala, gurekin *darabagun* euskal kulturaren ekosistema ezagutu, sustatu eta berrindartzeko grina. Egun bateko ikuskizun epiko eta galduezinez inguraturik gauden honetan, sinestsi nahi dugu pauso apal baina tinkoz jorratu behar dela bidea, bertoko kulturagileen hazkunde organiko bat bermatuko badugu. Pandemiak baldintzatu arren eta edizio hartan marraztutako kartografia berrietan galdu gabe, oraindik fresko eta iraultzailea dihardu, akademia, artista grafikoak, musikagileak eta idazleak batu zituen ekimen hark...

Eguneroko zurrunbiloan murgildurik gauden honetan, taupadak berpiztu dituzagun euskara hutsezko ekosistemak sustatuz. Xaxatu dituzagun gure gazteak euskaraz sortu, adierazi eta gorpuztu dituzaten euren pentsamendu eta emozioak, berdin kirol zelai batean, sare sozialetan, zein puntako laborategietan. Belaunaldi bakoitzak etengabe ditu apurtu beharreko bere mugak —zapaldu gabeko gailur berriak— gizarteak bere osotasunean egingo badu aurrera. Ikusteke dago konfort eremutik at, lorpen berri horiek euskaraz ere lortuko ditugun.



ARABAKO ERRIOXATIK AIARALDERA: EUSKARAREN PIZKUNDEA ETA BERPIZKUNDEA

Joseba Llano

Aresketa Ikastolako irakaslea

Zalantza barik, euskarak XX. mendean Araban izan duen bilakaera goraiatzekoa da. 1990eko hamarkadan, bertatik bertara ikusi ahal izan nuen Arabako Errioxan euskarak bizi izandako loraldia, eta hala ere, zaila egiten zait imajinatzea 1970eko hamarkadan eta ondorengo urteetan eskualde horretan euskararen egoerak izan zuen eraldaketa sakona. Euskara klandestinitatetik atera berria zen, eta hainbat euskaltzaleek ilusioz eta gogoz ekin zioten euskararen aldeko lanari. Euskararen pizkunde garaia zen, baita Arabako Errioxan ere. Denbora laburrean, martxan jarri zen euskaraz bizitzea ahalbidetuko zigun makineria osoa: ikastolak, euskaltegiak, Araba Euskaraz, Korrika eta abar. Pentsaezina zena erreallitate bihurtu zen.

Erronka itzela zen euskaraz entzute hutsak harri-dura pizten zuen eskualde batean ikastola bat martxan jartzea, eta hala ere, urte gutxitan, Bastida, Oion, Lantziego eta Lapueblako ikastolak sortu ziren. Poli-ki-poliki, proiektu xumeak eta minoritarioak izatetik, —baita maila batzuk legezatu barik egotetik ere—, proiektu sendo eta indartsu izatera igaro ziren, harik eta gaur egun, derrigorrezko hezkuntza eta batxilergo eskaintzen dituzten arte.

Arabako Errioxara iritsi nintzenerako, erronkaren zati bat lortuta zegoen. Bertako giroa eta aurreko hamarkadetan erdietsitako fruituak ikusteak nire euskaltzaleasuna indartu zuen. Mirari bat iruditzen zitzaidan, eta harro sentiarazten ninduen komunitate horren parte izateak. Ezin dugu ahaztu eskualde horrek Logroñorekin muga egiten duela, eta handik euskararen kontrako jarrera sozial eta presio instituzional handia zetorrela.

Lege-markoa aldekoa ez izan arren, eta babes falta gorabehera, garai hartako euskaltzaleek, ahalegin eta esfortzu handiz, Araba Euskaraz jaialdiak antolatu zituzten Oionen, Bastidan eta Lapueblan, bertako herritarren erantzuna, konpromisoa eta laguntza eskergari esker. Auzolan ariketa erraldoia izan zen. Bereziki oso gogoan dut Lapueblan 1994an bizi izandako Araba Euskaraz jendetsua.

Hurrengo hamarkadetan, abiarazitako euskararen aldeko lan eta dinamika desberdinei jarraipena eman genien euskaltzaleok, eta euskalgintza errotu eta sendotu ahala, euskararen etorkizun oparoa irudikatzen hasi ginen.

2000ko hamarkadan, Aiaraldera itzuli nintzen. Gure gizartea euskalduntzeko, aurreko hamarkadetan egindako lanari segida ematea besterik ez genuela uste genuen. Ikastola baten sortzailetako batek esan zidan moduan: "Gu, garai hartan, sinetsita geunden ikastolak martxan jarrita, gure seme-alabek euskara ikasi, eta automatikoki hurrengo belaunaldiak euskaraz hitz egingo zutela, euskara kalean egongo zela". Aitzitik, ez dirudi horrela izan denik. Errente-

tatik bizi izan gara azken hamarkadan. Ikasle gehienak D ereduan matrikulatuta egonda ere, euskararen erabilerak ez du behar bezala gora egin; testuinguru informalean, ikasleek ez dute euskaraz eroso egiteko adina maila. Erreallitatea ukaezina da: D ereduak ez du erabilera bermatzen. Sistema birpentsatu behar dugu.

Hori gutxi ez balitz, euskarak behar duen babesa eta sostengu instituzionala ahultzen joan da, eta berrogei urte ondoren, euskal erakunde publikoetan, oraindik ere ez da bermatzen euskararen kalitatezko erabilera. Kasu askotan egoera tamalgarriak sortuz euskaldunontzat! Euskarak ez du lortu dagokion prestigio sozial eta instituzionala, kasu askotan bigarren mailako hizkuntza izatera pasatuz. Norabide horretan, azken urteetako oldarraldi judizialak bazterketa instituzional batera eraman nahi du euskara.

Horra hor gaur egun aurrean dugun erronka nagusietako bat. Aurreko belaunaldiak egindako lan handiak honaino ekarri gaitu, baina ez da nahikoa izan kalean eta etxeetan euskararen erabilera normalizatzeko. Batetik, hezkuntza ereduak birplanteatu behar dira, eta bestetik, euskararen erabilera soziala sustatzeko estrategia berrien beharra dago, eta horretarako ilusio, konpromiso, ekintza eta ikusmolde berriak behar dira. Pizkunde berri bat behar da!

Testuinguru horretan, ez bairik gabe, gaur egun inoiz baino beharrezkoagoak dira Ikastolak eta Araba Euskaraz bezalako ekimenak. Ez soilik ospakizun gisa, baizik eta nondik gatozen, zer lortu dugun eta, zer gal dezakegun gogorazteko. Arabako Errioxako eta Aiaraldeko euskaltzaleek 1970eko eta 1980ko hamarkadetan erakutsi zuten bezala, aldaketa posible da, haizearen kontra bada ere; baina horrek lan nekeza, ilusioa eta komunitate osoaren konpromisoa eskatzen du. *Aiaraldea esnatu ala hil* bezalako dinamikek norabide horretan sakontzen dute.

Hemen ez dago inor soberan. Euskararen alde lan egiteko prest dagoen oro da ongi etorria, beti ere, konpromisotik. Esaerak dioen bezala, "Argia emateko prest ez bazaude, gutxienez ez egin itzalik".

Aiaraldean zein Arabako Errioxan, berpizkunde behar dugu, eta berpizkunduerako prest dagoen lagun oro dago gonbidatuta. Ilusioa, irdudimena, lana, konplizidatea, komunitategintza eta konpromisoa berpiztu daitezela, berpiztu dadila txinparta! Txipartarako prest gaudelako. Euskara ez dadila geratu getetako lau horma artean, atera dezagun euskararen txinparta kaletara, etxeetara, merkataritzara eta administraziora..., bidaiari honen hasierako ilusio berberarekin, baina gaurko erronkei erantzuteko adinako indarrarekin... Euskararen taupadak berpiztu!



ARESKETA IKASTOLA, EUSKARARI EKIN ETA ERAGITEKO TAUPADAK BERPIZTEN

Itxaso Ugarte

Aresketa Ikastolako zuzendaria

Amurrion sustraituta dagoen Aresketa Ikastolak argi dauka bere eginkizun nagusietako bat: euskarari ekin eta eragitea. Hezkuntza eskaintzatik harago, ikastolak euskararen erabilera, transmisioa eta biziberritzea ditu ardatz, eta aurten antolatu duen Araba Euskaraz 2026 ekimenaren bidez helburu hori herri osora eta Araba osora zabaltzea lortu du. *Taupadak berpiztu!* lelopean, euskararen aldeko bulkada berria sustatzeko konpromisoa erakutsi du ikastolak.

Urte osoan zehar, Araba Euskaraz egitarauaren baitan antolatutako jarduerak erakutsi dute euskararen aldeko lana ez dela egun bakarreko ospakizunera mugatzen. Kirola, kultura, musika eta aisialdia uztartuz, adin guztietako herritarrak euskararen inguruan biltzeko aukera izan da.

Ekimen aipagarrien artean izan da Jai Alai Master Series Txapelketa, euskal pilotaren tradizioa eta gaurkotasuna uztartu dituen. Halaber, Gasteizko Izaskun Arrue Kulturgunean egin zen Aiaraldeko sortzaileen topagunea, eskualdeko sortzaileek euren lanak partekatze eta euskarazko sormenaren indarra erakusteko gune bihurtu zen.

Kirolak ere protagonismo berezia izan du. Horren adibide da Euskal Herriko sei eskubalo talderen arteko topaketa, gazteen arteko harremanak eta euskarazko giroa sustatzeko balio izan duena. Bestalde, etxeko txiki-ekinek gozatzeko aukera izan zuten Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldi bereziarekin, euskarazko aisialdiak eta irudimenak bat egin zuten jardunaldi hunkigarrian.

Musikak ere toki berezia izan du programazioan. Bereziki esanguratsua izango da *Kantuz Taupadak berpiztu* ekimena; lehen aldiz, eskualdeko abesbatza desberdinak elkartuko dira emanaldi osoa euskaraz eskaintzeko. Kantuaren bidez, euskararen presentzia indartu ez ezik, komunitatearen batasuna eta hizkuntzarekiko atxikimendua ere agerian geratuko dira.

Aresketa Ikastolak aspaldidanik defendatu du euskararen etorkizuna ez dagoela soilik hizkuntza ikasteaz, baizik eta erabiltzeaz. Horregatik, aurten antolatutako ekimen guztiek helburu bera izan dute oinarrian: euskara plazara ateratzea, bizipen positiboekin lotzea eta herritarrak euskaraz bizitzera gonbidatzea. Izan ere, ikastolaren mezua argia da: euskararen taupadak bizirik daude, baina etengabe berpiztu eta indartu behar dira, belaunaldi berriek hizkuntza propioa naturaltasunez erabil dezaten.

Erreportajea



ADREILUZ ADREILU EGINDAKO BIDEA

Aresketa Ikastola hauspotzea du helburu aurtengo Araba Euskaraz jaiak. Amurrioko Ikastolak 1977an ekin zion bideari, beste izen batekin baina gaur egungo grin berak bultzatuta: euskarazko kalitatezko hezkuntza eskaintzea. Bide horrek mende erdia beteko du aurki.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Efemeride borobila ospatuko du Aresketa Ikastolak datorren ikasturtean. 2027an 50 urte bete-ko dira Amurrioko guraso talde batek gaur egun Aresketa Ikastola dena sortzeko lehen harria jarri zuela.

Hasiara gogorra izan zen 1977ko hura. Franko hil berri eta Trantsizio betean murgildurik, arazo administratibo ugari aurre egin behar izan zion seme-alabei “eus-

karazko kalitatezko hezkuntza eskaintzea” beste asmorik ez zuen guraso taldeak. Irakasleak topatzeko ere nahikoa lan izan zuten, bai eta eskolak emateko egoitza egokia lortzeko ere.

Mendiko Lagunak taldearen egoitzan hasi zuen ibilbidea Amurrioko Ikastolako lehenengo promozioak. Mendi taldearen aretoetatik Amurrioko AEK-k aurretiaz erabilitako eraikin aurrefabrikatu batera pasa ziren ikasleak. Ez zen bertan bukatu ikasle, irakasle eta familien itzu-

lingurua; gaur egun ikastetxea kokatuta dagoen orubera iritsi aurretik, hilerri pareko prefabrikatuetan kokatu zuten azken kanpamentua.

Adreiluen martxa

Ikasleentzako eraikin duin bat lortzeko bidean, 1989an Adreiluen Martxa dinamika jarri zuen martxan Ikastolako hezkuntza komunitateak. Amurrioko herritarren inplikazioa eta mobilizazioa nabaria izan zuen kanpainak, eta urte bete beranduago iritsi zen hez-

kuntza proiektua gaur egungo kokalekura: Amurrioko Aresketa auzora.

Etapari berriak Ikastolaren izen aldaketa ekarri zuen, auzoaren izena beregain hartu eta Aresketa Ikastola izango zen aurrerantzean. Haur Hezkuntzako ikasleak, ordea, ez ziren 2003ra arte iritsiko Aresketa auzora. Urte hartan elurte handi batek arriskuan jarri zituen hilerri ondoko eraikin prefabrikatuak. Guraso eta Ikastolako langileek auzolanean atondu zuten Aresketa Ikastolako eraiki-

na ikasleak bertan kokatu ahal izateko.

Aurretik, 1991an Kili-kolo ize-neko bi urteko gela aitzindaria jarri zuten martxan, eta 1996an antolatutako Araba Euskaraz jaieri esker Lehen eta Bigarren Hezkuntzako espazioak handitzeko finantzazioa lortu zuten. Izan ere, urte gutxiren buruan nabarmen hazi zen Ikastolako ikasle kopurua.

Mende berria, erronka berriak

Mende berriarekin batera Aresketa Ikastolako espazioak hobetu



Erreportajea

eta handitzeko lanetan murgildu ziren Ikastolako kideak. 2005ean ikasleen atsedenaldirako eremu estaliak instalatzeko lanei ekin zieten, eta instalazioak berritze-ko ardura etengabekoa izan da ordutik aurrera.

Aldaketa sakonena 2018an burutu zuten. Haur Hezkuntzak metodologia berriak ezartzeko helburuarekin, goitik behera berregokitu zuten espazioa- Hormak bota eta azpiegitura guztiz berritua altxatu zuten bi hilabeteko epean.

Bide luzea aurretik

Auzolanak eta etengabeko eraldaketak sendotu du Aresketa Ikastolaren hezkuntza proiektua urte guzti hauetan. Iragan 2024an ortzimuga berezia zeharkatu zuen Ikastolak: lehenengo promozioko ikasleek 50 urte bete zituzten. Hezkuntza proiektuari dagokio orain 50. urteurrena ospatzea. Euskara ardatz eta auzolana lanabes, bide oparoa du aurretik.

2027an 50 urte beteko dira Amurrioko guraso talde batek gaur egun Aresketa Ikastola dena sortzeko lehen harria jarri zutela





Hamaikagarrenez Aiaraldean

Aurtengoarekin, hamaika aldiz ospatu da Araba Euskaraz jaia Aiaraldean, 40 urte baino gehiagotan zehar.



1993 LAUDIO

Etorkizuna euskaraz
Laudion egin zen arren, Etxaurren, Aresketa eta Laudio Ikastola aritu ziren elkarrekin 1993ko Araba Euskaraz antolatzen. 50.000 lagun bertaratu ziren eta 1.500 kide aritu ziren boluntario lanetan, garaiko prentsaren arabera.

1996 AMURRIO

Euskara guztiona
Lehen Hezkuntza eta DBHko gela hazkuntza zela eta, Aresketa Ikastolako eraikuntza txiki gelditu zen. Orduan erabaki zuten Araba Euskaraz Amurrión antolatzea bigarren, eraikuntza handitzeari ekin ahal izateko.

2000 LAUDIO

Txikia zainduz handitu
Beldarra ikur moduan hartuta, belaunaldien arteko transmisioan begirada jarrita eman zioten hasiera milurteko berriari Laudion ospatutako Araba Euskaraz jaian. 50.000tik gora lagun bildu ziren festan, garaiko prentsan jasota agertzen denez. Laudio Ikastolako lanak ordaintzera bideratu zen bildutako dirua.

1983 LAUDIO

Zabaldu euskara Araba Euskalduna
1983ko abuztuko uholdeetatik bi hilabetera ospatu zen lehenbiziko aldiz Araba Euskaraz jaia Aiaraldean, Laudion. Bildutako dirua ez zen Ikastolarentzat soilik izan, herriko eragileen artean banatu zen.



1986 AMURRIO

Araban bultza euskararen martxa
Araba Euskaraz jaia Amurrión ospatu zen lehen aldiz izan zen 1986koa. Ikastolako kideek antolatu zuten, herriko beste erakunde eta ikastetxeekin elkarlanean.





2021 LAUDIO

Zabal bideak

Ospatu edo ez ospatu? Dilema horrekin egin zuten topo Laudio Ikastolako kideek Araba Euskaraz lekukoa hartu zutenean. Izan ere, pandemiatik eratorritako murrizpenek ezinezkoa egiten zuten ohiko jai-jendetsu bat egitea. Hala ere, aurrera egitea erabaki zuten, Laudio hainbat zonalde jai-ere du berrian esperimentazio gune bilakatuz.

2020 AMURRIO

Darabagu

Pandemia bete-betea egokitu zitzaion Aresketa Ikastolari Araba Euskaraz berriro antolatzea. Gauzak hala, ohiko jai egun jendetsu bat egin ordez, hainbat ekitalditan banatu zuten ekimena. Urrian egin zuten ekimen nagusia, Amurrio Antzokian, Ahotsenearekin batera antolatutako kontzertu maratoiarekin.



2005 AMURRIO

Ekiozu bideari

Jose Luis Zumeta euskal artistaren ibilbide oparoa omen du zuten edizio hartan, berak egin baitzuen jairako logotipoa. Abestia, aldiz, Ken Zazpi talde ezagunak ekoiztu zuen. Aresketa Ikastolako eraikineko espazioa handitzera bideratu zuten bildutako dirua.

2011 LAUDIO

Bagare

Laudio Ikastolaren 40. urteurrena ospatzeko ere baliatu zuten 2011ko Araba Euskaraz jaia. Edizio berezia izan zen, abestitik abiatuta. Izan ere, ez zen kanta bakarra egon, talde ugari animatu baitziren Gonztal Mendibil eta Xeberriren Bagare kantua bertsionatzera, eta diskoa atera zuten gero kantu gutxiekin.

2013 AMURRIO

Mihian kili-kili, euskaraz ibili

Eremu eta instalazio berriak eraikitzen jarraitu ahal izateko hartu zuten Aresketa Ikastolak bere gain 2013ko Araba Euskaraz antolakuntza. Eguraldi ona lagun, milaka lagun bertaratu ziren jaiatzera.



GANORA KOPAS



IDEIAK GAUZATZEN DITUGU

Trofeoak, Kopak, Txapelak, Plakak, Giltzatakoak, Pinak, Kamisetak, Zapiak, Amantalak, Sukalkit, Laser grabaketak, Metakrilatoa, Promozio artikulua, Sari instituzionalak, Merchandisinga, Grabatuak, Taillaketak, Brodatuak, Errotulazioa, Biniloak, Lonak, 3D inprimaketak, Estanzazioak...

Aiarako Industrialdea 8, 01479 MURGA / ARABA
945 39 94 05 fabrica@kopas.es



Alda. Urkijo 88 - 2 - 48013 BILBAO / BIZKAIA
944 42 22 24 kopas@kopas.es

arrate

gestoria aholkularitza aseguruak

Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com



Taupadak berpiztu!
Euskaraz bizi!

Herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia erredakzioa@aiaraldea.eus helbidera edo 688 84 81 52 WhatsApp edo Telegram zenbakira. Ekainaren 17an argitaratuko dugu hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Inar

Zure lehen urtebetetzean zorionak etxeko guztien aldetik eta ondo pasa

Etxekoak



Ibai

Iada handia egin zara eta 12 urte bete dituzu. Zorionak etxeko guztien aldetik eta ondo pasa.

Etxekoak



Ainhoa

Zorionak Ainhona! Altxa burua apunteetatik eta gozatu hamarkada aldatetaz!

Ahizpatxo



Endika

Zorionak Endika! Latiarron duzu multzoa zain, banaketa egin dezazun! Maite zaitugu!

Komunikabideko lagunak



Botas

40 urte antolatzen borrokatzen Avada kedavra!. Ze iritzi?

Whatsappeko lagunak

Denborapasak


SUDOKU OSO ZAILA

		1				8		3
			9					
			4		1	7		
	6		2		8			
		8		5		2		
	9			4		1		7
		5	1		3		9	
8								1
4		6						


SUDOKU ERRAZA

		9		8	4		6	5	3
		4	2	6		5		9	7
6			5		7				
					5		7	3	
		7				3	5	6	2
3			4				8		
		8	9		6	7		4	5
4	2	7			9	1	3	8	
5	6					4			7

ANDERSEN MATEA



GREKO MATEA



Zuriek jokatzeko dute eta mate egiten dute.

Amurrioko Xake Taldea

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku eta xake partiden soluzioak webgunean ikusgai: www.aiaraldea.eus/denborapasak

Zozketa



Araba Euskaraz 2026 jaiko material sorta zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak



Parte hartu!

Aiaraldea Komunikabideak Amurrion ospatuko den Araba Euskaraz jaiko material sorta zozkatuko du irakurleen artean.

Zozketaren data: Ekainak 12, 12:00etan

Herriko plaza

Boluntarioen Txokoa

Dozenaka inurriren lan ikusezin eta isilari esker egiten du aurrera Komunikabideak. Badira hamabostekariak euren auzoan banatzen dituztenak. Badira argazkiak bidali eta albisteen berri ematen dutenak. Guztiak dira ezinbestekoak. Haiei guztiei esker ona eta ahotsa ematea besterik ez dugu.



JOSEBA LLANO
KOLABORATZAILEA

"KOMUNIKABIDEA HEZKUNTZA TRESNA ERE BILAKATU BEHARKO LITZATEKE"

Nolako da Aiaraldea Kooperatiba Elkarteko Artezkaritza Kontseiluaren jarduna? Nola hartzen dira erabakiak bertan?

Artezkaritza Kontseilua kooperatibaren kudeaketa organo bat da, bertan bazkide erabiltzaileak eta langile bazkideak ordezkaturik daude. Nik bazkide erabiltzaile gisa parte hartzen dut.

Kooperatibaren proiektuak eta ekimenak aurrera eramanez ahal izateko, informazioa bildu, datuak aztertu, analisia egin eta erabaki asko hartu behar dira, eta horrek "kudeaketa lan" handia eskatzen du. Artezkaritza Kontseilua, plangintza eta aurrekontuen bidez, egunerokoan hartu beharreko erabakietan hausnartu eta erabakiak hartzen laguntzeko dago.

Bertan hartzen dira baita Aiaraldea Komunikabideari lotutako erabakiak?

Kooperatibako beste ildoetan bezala, Komunikabidearen plangintza eta aurrekontua aurkezten dira aldiro, eta bertan gogoeta egin eta erabaki estrategikoak hartzen dira. Salbuespeneko egoeretan, unean uneko erabakiak ere hartzen dira, pasa den urtean Amurrioko Udalarekin izandako gatazkaren ingurukoak kasu. Beraz, nik esango nuke erabaki "poto-loak" edo estrategikoak hartzen direla kontseiluan, komunikabidearen egunerokoan norabidea finkatzeko eta kooperatibako beste ildoen erabakiekin bat egiteko. Horrez gain, eduki lerroak, proiektu berriak, kolaborazioak eta komunikabidearen etor-

kizuneko bidean hartu beharreko norabideak ere eztabaidatzen dira kontseiluan.

Gogoeta estrategikoan murgilduta dago kooperatiba uneotan, 2030an bere burua non kokatuko duen ikusteko. Zeintzuk dira, zure ikuspegitik, 2030ra begira kooperatibak dituen erronkak?

Ez da galdera erraza planteatzen didazuna... baina niretzat garrantzitsuak honako hauek dira. Euskararen erabileraren egoera premiazko gaia da. Gaur egun "Aiaraldea esnatu ala hil" bezalako ekimenak indartu behar ditugu. Eskualdean euskararen presentzia indartzea ezinbestekoa da, eta kooperatibak horretan paper garrantzitsua jokatu behar du, euskarazko komunikazioa eta euskal kultura sustatuz. Kooperatiba arnagune moduan indartzen jarraitu, eskualdean horren beharra dugu eta...

Eskualdetasuna ere hor dago. Nola indartu presentzia eskualde osoan? Aiaraldea eskualde zabala da, eta ez da erraza herri guztietan presentzia bera izatea. Nola iritsi Amurriora, Urduña, Artziniegara eta gainerako herrietara modu orekatuan?

Kooperatibaren izaera eta egituraren inguruko hausnarketa ere eman behar da. Zertarako Aiaraldea kooperatiba gaur egun gure eskualdean? Zer eskaintzen du beste eredu batzuek eskaintzen ez dutena? Nola bermatu kooperatibaren balioak etorkizunean eta zein tresna behar dugu horretarako?

Beste gai batzuk ere egongo dira.

Aresketa Ikastolako irakaslea zara. Zer nolako hartu emana dauka Aiaraldea Komunikabideak hezkuntza komunitatearekin? Zertan hobetu beharko litzateke?

Lantresna garrantzitsuena hamabostekaria da: ikastolan, ikasleen bidez, familiei banatzen zaie. Beraz, gelaz gela ikasleek hamabostekaria jasotzen dute. Horrek eskualdean gertatzen denaren berri euskaraz ematen die ikasleei eta haien familiei, eta hori oso baliagarria da.

Hobetzeko, ikastolaren harremana komunikabidearekin indartu beharko litzateke, zenbait proiektuen bitartez edo bisiten bitartez. Adibidez, ikasleek beraien artikuluak idazteko aukera izan dezakete, komunikabidearen instalazioak bisitatu ditzakete, edo elkarrekin lanketa pedagogikoak egin. Beste ideia bat hamabostekaria tresna gisa erabiltzea, lanketa pedagogikoa egiteko da: irakurmena, idazmena, informazioaren tratamendua edo kritika gaitasuna landu daitezke hamabostekariaren bitartez. Horrela, komunikabidea ez litzateke soilik informazio-iturri bat izango, hezkuntza tresna bilakatuko litzateke ere.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.

Maiztasuna: Hamabostekaria

Lege gordailua: BI-1230-2013

Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus | agenda@aiaraldea.eus | erredakzioa@aiaraldea.eus

Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus | 688 62 53 94

Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400

Telefonoak: 94 656 85 54 | 688 84 81 52

Webgunea: www.aiaraldea.eus

Erredakzioa: Maider Ramirez Martin, Aitor Aspuru Saez, Txabi Alvarado Bañares eta Aimar Gutierrez Bidarte

ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Komunikabideak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI: Aitziber Alava, Josu Zabala, Gemma Corbella, Endika Arribas, Gorka Chamorro, Ane Izquierdo, Aitor Fernandez de Pinedo, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea,

Amets Meaza, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku, Iratxe Murias.

LIZENTZIA: DOAN ETA LIBRE
Aiaraldea komunikabideko edukiak koptatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, Aiaraldea Komunikabidea daramatzatentzat soilik.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



araba álava
foru aldundia diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Ko



Irakurketa gunea

NIRE KAPELA NAHI DUT

Egilea: Jon Klassen

Itzulpena: Maialen Mujika

Argitaletxea: Nubeocho

Hartza kapelik gabe esnatu da, bere kapela norbaitek lapurtu dio eta basoko animaliei galdetuz topatzen saiatuko da. Hiru album ilustratu dituen bilduma da, bakoitzak istorio ezberdin bat kontatzen du kapelen inguruan.



SU TXIKIAN

Idazlea: Olatz Mitxelena Larreta

Ilustratzailea: Irati Eguren Arruti

Adina: 12 urtetik gora

Argitaletxea: 1545

Galderaz beteriko album ilustratua. Galdera batzuen erantzuna ipuinean topatu daitezke eta beste askorenak ez. Biloba eta aitonaren arteko elkarrizketan oinarritzen da, aitonak pentsatzeko erantzunak ematen ditu.



JOLASGUNEAK

HALF PIC ANIMALS

ZER DA?: Andreu Toys-en mahai jolasa da. Egurrezko piezak, errotulkiak eta borradorea dituena. Ez dago modu bakarra jolasteko.

AZALPENA:

Bi alde dituzte piezak. Alde batean animalia erdia topatuko duzu beste aldean margogarria den arbelatxoa. Egin daitezkeenak: Bi animalia zatiak elkartu, memory jolasa, animalia berriak sortu... Atzeko partean margotu daitezkeenak, animalia berriak margotu edo daudenak berproduzitu daitezke.



KO
KO-
RI
KO

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Aiaraldean euskaraz


Ez da lehen aldia haur eta nerabeekin euskararen lanketaren inguruan hitz egiteko lerro hauek erabiltzen ditudanak. Gaiak erpin ugari ditu eta gure eskualdean egoera ez da batere xamurra. Kokoriko Hezkuntza Faktoriatik oso arduratuta gaude eskualdeko haur eta nerabeek duten hizkuntza gaitasunarekin. Arduratuta gaude aisialdi aratua, erdaltoki bihurtu delako.

Esolan euskara ikasi arren eta "D eredu" guztiz errotua egon arren, nerabeek eskola prozesua bukatzen dutenean, ez daukate euskaraz aritzeko gaitasunik. Orokorrean ez dira kapazak euskaraz beraien iritzia emateko edo gai baten inguruan euskaraz aritzeko. Ez behintzat ahoko elkarrizketa batean. Gaitasunik bereganatzen ez badute, ez dute erabiliko, eta noski ez badute erabiltzen ez dute gaitasuna bereganatuko.

Hizkuntza etxean jaso dutenen kasuan, hainbeste dira erdaltoki bezala funtzionatzen duten espazioak, ezen beraien hizkuntza gaitasunean ere eragiten duten. Oso aukera gutxi dute haur eta nerabeek, euskaraz dantza edo kirola egiteko, euskaraz musika ikasteko, hau da oso aukera gutxi daude euskaraz aisialdi arautuz gozatzeko. Eta euskaraz diren kasuetan, ez dago euskara sustatzeko protokolo edo tresna egokirik, eta beraz, erdaltoki bihurtzen dira.

Pizkundea etorriko da, euskalgintza prest dago aro berri honek aurkezten digun egoerari aurre egiteko. Baina euskaraz hartzak erakutsi behar ditu, egoera latzaren aurrean indarrez atera behar ditu bere armak. Euskaldunak saretu, ahaldundu eta konpromiso erantzun behar diogu egoerari. "Euskal Herrian euskaraz" abestiak esaten zuen 80ko hamarkadan, "bada garaia noizbait dezagun guda hori gal edo irabaz", sentazioa dugu, bada, guda galtzen ari garela eta indarrak bildu behar ditugula irabazteko.

EGUZKIAZ GOZATZEKO ESKULANAK



AZALPENA

Uda dator, eta udarekin batera eguzkia ere izango dugu. Eguzkiarekin jolas ugari egin daitezke. Guk bi eskulan aurkezten ditugu hemen.

OSAGAIK

- Papera
- Margoak/errotulkia
- Kola
- Kartulina
- Zelofana
- Animaliak edo objektuak

ZELAN EGITEN DA?

1. Lehenengo eskulana oso erraza da. Objektu bat jartzea da eta objektu horrek paperean sortzen duen itzala erreparatzea eta irudia egitea da. Sinplea baina margoak aldatzen badira dibertigarria izan daiteke. Adibidez, tenperak aterata eta eskuekin margotzeko eskatuta.


2. Kartulinarekin bi marko egin, erdian kolore ezberdinetako zelofan papera jarri eta kolorekin kartulinak batatuz bestearekin elkartu. Koadro bat osatuko dugu barruan zelofana duena.

Zelofan paper hauek kristalean itsasi eta eguzkiak jotzen duenean argitasuna etxe barrura sartuko da. Etxea kolore ezberdinekin betez.

Etxeko kolore horiekin jolastu daitezke. Adibidez, kartulinak nahastuz eta kolore berriak sortuz, edo kolore horiek animalia ezberdinen etxeak izanik... Utzi imaginazioa aieratzen eta gozatu eguzkiarekin.




Hauxe aurkitu beharko zenuke Olatz kirikolatzairen etxearen inguruan:

-  6 euli
-  4 zizare
-  3 barraskilo
-  2 sorgin-orratz



Miren Olatz Kirikolatza Beldurtiaren Baratza



Margotu Trikuek ez dituzte bide-seinaleak ezagutzen. Horregatik, bidean ikusten badituzu, pasatzen utzi. Eta orain, margotu irudia zure gustura.

Soluzioak





Kontra Mundutik Aiaraidera



FARIDA SEMRANI

JAIOTERRIA
TIZI UZU, 1983

BIDAIAREN XEDEA
DUELA 14 URTE IRITSI ZEN. ARESKETA IKASTOLAKO AMA DA, ETA AMURRIKO BESTE HAINBAT KONTUTAN DAGO ANTOLATUTA.

“EUSKARA IKASTEARI BELDUR DIOTEN HORIEI AUSARTZEKO ESKATUKO NIEKE”

Nola iritsi zinen Aljeriatik Amurriona?

Nire senarraren urratseijarratzen etorri nintzen hona, 2012an iritsi nintzen. Laudiora joan nintzen hurrena, zortzi hilabete eman nituen bertan. Etxez aldatu eta Amurriona etorri ginen gero. Hemen egon naiz ordutik.

Ikastolako ama zara zu.

Bi seme-alaben ama naiz ni bai, 12 eta 11 urtekoak; Dania eta Mahfoud. Alaba nagusia Aresketa Ikastolako Kili-kolon hasi zen, eta gauza bera egin du bere neba txikiak ere.

Etxetik gertu genuelako aukeratu genuen seme-alabak Ikastolan matrikulatzea. Txikikeria bat dela pentsatuko duzu. Kasualitatez iritsi ginen Aresketara baina oso pozik gaude. Oso ondo artatu gaituzte urte hauetan guztietan.

Irakasleek, langileek... guztiek oso ondo azaldu dizkigute gauzak, oso eskertuta gaude.

Ikastolako Batzarreko kidea naiz orain. Jantokian ere lagundu egiten dut behar duten aldiro. Aresketako hezkuntza komunitatea da nire komunitatea. Gogo onez egiten dut ekarpena beti, Aresjaiaren antolakuntzan esaterako.

Araba Euskaraz jaia da Aresketa Ikastolak aurtien duen beste mugarrietako bat. Imajinatzen dut horrek ere lan boluntario handia eskatuko duela.

Bai noski, buru-belarri gabiltza horretan. Uste dut oso jai garrantzitsua dela Ikastolarentzat, baina baita euskararen alde ere.

Euskara ikasteari beldur dioten horieiausartzeko eskatuko nieke. Geroz eta hizkuntza gehiago eza-

gutu orduan, eta aberatsagoak izango gara. Nik ez dut euskara hitz egiten, baina banaiz ulertzeko kapaza gutxi gora-behera. Nire seme-alaben lehenengo hitzak euskaraz izan ziren. Anekdotabarregarria da: Ikastolatik etxera iristen zirenean “ama ura”, “ama ogia” esaten zidaten. Nik ez nuen tutik ulertzen, alaba nagusiak ogiaren poltsa seinalatzen zidan arte. Haiei esker noa gutxika-gutxika euskaraz ulertzen.

Zenbat hizkuntza hitz egiten dituzue etxean?

Nahasteizugarria da (barreak), hizkuntza asko hitz egiten ditugu. Jatorriz Berbereak gara gu eta berbereraz mintzo gara. Arabiera, frantsesa eta ingeles apur bat ere erabiltzen ditugu, edo erabili izan ditugu. Gaztelaniaz mintzo

gara ere, baina gure etxeko gaztelanian euskarazko makina bat hitz daude. “Kaixo”, “arratsalde on”... gure eguneroko hitzak dira. Belaki baten modukoak gara.

Nik ez dakit euskaraz hitz egiten, baina ulertzeko gai naiz; bai behintzat elkarrizketa baten gaia zein den harrapatzeko adina. Nahiko nuke euskara ikasi, baina denbora gutxi daukat. Nork daki, agian hurrengo elkarrizketa osorik egin dezakegu euskaraz (barreak).

Topatu duzu zuresorteriarekin antzekotasunik Amurrion?

Agian bitxia dirudi esango dudana, baina hona iritsi nintzeanean ez nintzen erbesteratua sentitu. Bertoko ingurua eta nire sorteria oso antzekoak dira. Nire herria ere mendiz inguratutako eskualde berdea da.

ALJERIA



DESKRIBAPENA

Afrika iparraldeko estatua da Aljeria, eta amazig etniako biztanle gehien biltzen dituen bigarren herrialdea, Marokoren atzetik. Aljeriako amazig herrietako bat herri kabiliarra da. Kabilia eskualdean dute jatorria, Aljeria iparraldeko ingurune menditsuan.

AZALERA

110.860 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

11,2 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Arabiera frantsesa eta amazigera (%19 kabilieraz)

Bereber gisan ere topatu ditut antzekotasunak Euskal Herriko historiarekin eta hizkuntzarekin. Guk ere bizi izan ditugu hizkuntzaren gaineko debekuak, errepresioa... Uste dut konexio horrek bultzatu nauela Amurrioko komunitatean nire ekarpena egitera. Sinetsita nago gure arteko desberdintasunek aberatsagoak egiten gaituztela, baina bai hemen bai han, beti daude indartsuenaren legea inposatu nahi dutenak. Guk badugu esaera zahar bat: “historiarik gabeko herri bat mingainik gabeko pertsona bat bezalakoa da”. Mundu guztiak beharko luke izan bere hizkuntzan hitz egiteko eskubidea. Bakean biziko ginatete horrela.

Aljeriako familiarekin harremana mantentzen duzue?

Bai, askotan bidaiatu dugu Aljeriara familia bisitatzerako. Ez nahi beste, hegazkineko txartelak garestiak direlako. Zorionez, teknologiari esker, uneoro gaude harremanetan, eta hori oso positiboa da.